

Herririk Herri |4|

20 erreklamazio PSE-EEren egoitzan izandako leherketaren ondorioz

Ekonomia |10|

Artisautza bultzatzeko foru dekretu barria onartu dau Bizkaiko Aldundiak



Berbaz |9|

Roberto Palacios: "Auzoa sortu zenetik ia ez da konponketarik egin"

AHTaren kontrako akanpada eta manifestazinoa

Izurtza • Berbaldi, eztabaida, antzerki, poesia emanaldi, mendi martxa eta manifestazinoa antolatu ditue uztailearen 24tik abuztuaren 2ra. Abiadura Handiko Trenaren kontra antolatzen daben 14. akanpada izango da hau. **3**

Bere grabatuak erakusketan bildu ditu Goizane Azpirik

KULTURA • Oso gustuko dauen grabatu teknikagaz egin ditu Goizane Azpiri margolari durangarrak Arteakaleko Arteka liburu-dendan erakusten dituen hamabost koadroak. Beragaz egon gara. **13**

ANBOTO astekariko langileok oporrak hartuko doguz. Abuztuaren 28an bueltatuko gara, Durangaldeko barri emoteko gertu. Ondo pasatu!



•Atxondo

AHTaren desjabetze-akten sinadura bertan behera **8**

•Elorrio

Igazko aurrekontuak luzatzea erabaki dau Gobernu Taldeak **7**

•Otxandio

Energia barritzagarrien gaineko diagnosa egingo dau Udalak **6**

•Abadiño

Urrian egingo dabe babeseko etxebizitzaren zozketa **6**

Goiuria ikastola izan zena kulturagune bilakatuta

> Iurretako elkarteak inauguratu barri daben Goiuria kulturagunean batuko dira

> "Herriko eguneroko jarduna aberastuko dau", dino alkateak

2



Martitzenean egindako inaugurazio ekitaldian hainbat herritarrek parte hartu eban. Iban Gorriti



Jon Soloeta Huri-Barrena Jatetxea

Karta. Ardoak.
Eguneko menua.
Asteburuetan
menu berezia.

Huribarrena 8, Otxandio
Tel.: 945 45 01 25

HERRIRIK HERRI >

DIURRETA

Goiuria ikastolatik kulturgunera, fruituak jasota hazi barriak ereiten

“Kultura, sormen eta irudimen esparrua” izan gura dauen Goiuria kulturgunea inauguratu dabe



Hainbat herritar hurreratu zen Goiuria kulturgunearen inaugurazino ekitaldian parte hartu eta azpiegitura ikustera. Iban Gorriti

Urruxar bertso eskola eta Iurretako Txirringuluri Elkarte bertan sortu ziren, eta diktadura sasoian “euskal kulturari, euskarari eta herriko umeak euskaraz hezi eta garatzeko aukerari” ateak zabaltzeko eutsaz. Goiuria ikastola hartu eban. Orain, “kultura, sormen eta irudimen esparru barria” izango den Goiuria kulturgunea hartu dau lekukoa. Kultur, kirol eta elkarte sozialak elkartzeko lekua izango da.

Ikastola itxi zela 30 bat urte dira: “Klandestinitatean hasi ginen, La Cuadra tabernaren gainean, eta Zubiaurren alokatutako pisuan jardun ondoren, 10.000 pezetan erosi genduen gero lokala, geuk konpontzeko”, gogoratu dau Prudencio Elorrietak. Hain-

Goiuria kulturgunea erabili gura daben elkarteek uztailaren 20a bitartean egin leikie eskaria

Mikel Deuna dantza taldeak eurendako leku egokia ez dela dino, “espazio, ordutegi eta kokapenagaitik”

bat trabari egin eutsen aurre 25 bat gurasok, lehenengo ikasturte haretan 15 ume batuz. “Ez zegoen publizitaterik egitea, ez genkien eta noiz arte egotea izango eben”, dino Kristina Mardarasek, gazteek be kooperatiba haretan parte hartzea zeukiela nabarmenduz.

“Aberasgarria”

Iñaki Totorikaguena alkateak azaldu dauenez, eguneroko jarduna “aberastuko” dau, “ikastola haren espiritua ahaztu barik, ereindako fruitu anitzei eutsi eta bideari jarraituz”. Halan be, zenbait elkarte eurendako leku egokia ez dela dino, Mikel Deuna dantza taldeak kasurako: “Espazio, ordutegi eta kokapenagaitik”. Plazan gura ei dabelekua: “Entseguetarako one-

na da. Ezin dogu gora eta behe ibili”. Arazoa biltegi falta da, alkatearen ustez: “Konpontzen saiatuko garen arren, oraingoz hau da dagoena, plazan ez daukagu ezer”; txirringuluri elkarteak eta Jai Batzordeak arazo bera ei daukie. Elkarte guztiei zabalik dagoela “eta gabeziak egon arren ahal den neurrian erabiltzera” deitu dau eta holan egingo dela uste dau. Eskariak hilaren 20a arte egin leitekez.

Jabetzan emondako eraikina konpontzen 300.000 euro erabili ditu Udalak. ■ A.B

“Gabeziak egon arren” azpiegitura erabiltzeko deia egin dau herriko alkateak

Goiuria kulturgunerako araudiaren aurka egin dau alderdi sozialistak

Goiuria kulturgunea dinamizatu eta proposamenak bideratuko dituen Jarraipen Batzordean egotea “ukatu” jakela salatu dau PSE-EEK, azpiegitura barrirako araudiaren kontra agertuz.

Jarraipen Batzordean elkarte bakotzeko ordezkari bana eta udal ordezkari bi egongo dira, Kultura Batzordean holan bozkatu ondoren: alkatea —edo delegatutako pertsona— eta Jose Luis Zubillaga EB-Berdean ordezkaria. “Inork bere burua proposatu gura ete eban galdetu eta inor ezzen aurkeztu; azkenean neu aurkeztu nintzen”, dino Zubillagak: “Orain tortilari buelta emon deutso PSE-EEK, elkarteak gitxietsi gura ez direla esanez”. Alkatearen berbetan, “ez da inor baztertu, udal ordezkaritza neurtu gura izan da. Loteslea den Kultura Batzordean udal talde guztiak dagoz”.

Jarraipen Batzordean egotea “ukatu” jakela arrazoitu dabe sozialisek

Hori holan izanda be, ezin dabela kulturgunean gertatzen denaren “erantzule” egin dinoe sozialistek: “Denporak aurrera egin ahala ikusiko dogu jarduna. Elkarteek emongo deuskue hutsuneen zein hobetzekoen barri, baina Jarraipen Batzordean udal talde guztiok egon beharko geunke”. Gitxinez bigarren indarreko kide bat ez izaterai “ulertezina” deritzoe. ■ A.B.

DI GARAI

Herria urbanizatzeko lanak kritikatu ditue jeltzaleek

Herriaren izaera kaltetzen dabela dino alderdiak

San Migel kaleko urbanizazio lanak amaituta dagozen honetan, obra horreen inguruko balorazio kritikoa egin dau EAJk, alderdiak argitaratzen dauen aldizkarian. Lanek “herriko beharrezanez” ez deuseela erantzuten uste dabe jeltzaleek. Gainera, hasieran jarri-

tako epeak “luzatu” egin direla salatu dabe.

Herrigunean sakangune eta oinezkoendako pasabide gehiago behar direla azpimarratzen dabe, eta egin diren lanak ez direla “egokiak” behar horreen arabera. Horretaz aparte, “espaloio barriak

antiestetikoak dira”, jeltzaleen eritziz. Horren eraginez “baserri giroko herri txiki baten idiosinkrasia” ez dabela errespetatzen azaldu dabe.

Obra horreek hainbat fasetan garatu dira ikasturte honetan, plaza, errepidea eta espaloioak konputan hartuta. ■ M.O.

Herrian sakangune eta oinezkoendako pasabide gehiago behar direla azpimarratu dabe jeltzaleek

DI MALLABIA

Datorren ikasturterako hainbat ikastaro aukeran

Ermua-Mallabiko Lanbide Hasterako Ikastegiak hiru ikastaro antolatu ditu 2009-2010 ikasturterako: ‘Ibilgailuen mantentze laguntzailea’, ‘Industria mekanikoko laguntzailea’ eta ‘Ile-apaindegi eta estetikako laguntzailea’. Eskolak irailaren 7an hasiko dira, eta bi ikasturteko iraupena izango dabe. Matrikulazio epea uztailaren 30a artekoa izango da, eta

izena emon gura dabenek Ermuko Udal Ekonomia, Sustapen, Enplegu eta Trebakuntza Saileko arduradunarengana jo beharko dabe (943176422). ■ P.M.

Irailaren 7an hasiko dira bi ikasturtean zehar garatuko diren ikastaroak



IZURTZA

AHTaren kontrakoak elkartu eta koordinatzeko akanpada

Izurtzan da aurten AHTaren kontrako akanpada: hamalagarren aldia dau

A biadura Handiko Trenaren kontrako jarrera daukan jentearen elkarretaratze, elkar ezagutze eta koordinaziorako espazio eta une apropos legez aurkeztzen dau AHTaren Kontrako Asanbladak uztailaren 24an hasi eta abuztuaren 2a arte Izurtzan egingo daben akanpada.

Egun horreetarako berbaldi, eztabaida, antzerki eta poesia emanaldi, mendi martxa eta manifestazinoak antolatu ditue. Durango, Elorrio eta Mañarira be zabalduko da. Antolatzaileek, Izurtzako hitzordua “erresistentzia gune” izan daiten gura dabe, eta “desarrollismoari eta zapalkuntzari aurre egiteko” helburuz antolatu dabela dinoe.

Barrea, jaia eta lana uztartuko dituen bilgunea izango dela akanpada nabarmendu dau AHTaren Kontrako Asanbladak. “Gizarte kapitalista jasangaitz honekiko ikuspuntu kritikoa eta bizimodu orekatu eta sistemaren ezarpenetatik askea” bultzatzeko lan egingo dabela dinoe.

Manifestazinoa

Uztailaren 24ko eta abuztuaren 2ko akanpadaren aldarrikapena gizarteratzeko, abuztuaren 1ean manifestazinoa egingo dabe, 12:00etan Durangoko Andra Marian hasita. Tartean, astean zehar, egun osoan askotariko ekitaldiak eta ekimenak izango dira Izurtzako akanpadan. ■ I.E.

Uztailaren 24an hasi eta abuztuaren 2a artekoa izango da Izurtzan AHTaren kontrako akanpadaren hitzordua

Abuztuaren 1erako, Durangoko Andra Maritik 12:00etan abiatuko den manifestazinoa antolatu dabe

EGITARAUA

- Uztailak 23:**
- 19:00etan, Aaurkezpina
- Uztailak 24:**
- 18:30ean, ‘Orkestra Nazionala’ Durangoko Gaztetxetik
 - 21:00etan, ‘AHTaren izenean Amen’ antzezlan Durangoko Santa Ana plazan
- Uztailak 25:**
- 09:30etan, Bizikleta martxa
 - 12:00etan, Luntx herrikoia
 - 16:00etan, “TAV: Las razones del no” liburuaren aurkezpina
 - 17:00etan, Tailerra
 - 21:00etan, Kontzertuak
- Uztailak 26:**
- 09:30ean, Mendi ibilaldia
 - 14:00etan, Bazkaria
 - 17:00etan, Topaketa
 - 23:00etan, Jolasak
 - 23:00etan, Poesia eta antzerki emanaldiak
- Uztailak 27:**
- 19:00etan, ‘Requiem’ liburuaren aurkezpina

- 23:00an, Kontzertua
- Uztailak 28:**
- 10:00etan, Asablada
 - 18:00etan, Eztabaidak
 - 23:00etan, Zinema
- Uztailak 29:**
- 10:00etan, Mendi martxa
 - 17:00etan, Pailazoak
 - 19:00etan, ‘Bienvenidos a la Máquina’ liburuaren aurkezpina
- 23:00etan, Kafe-tertulia
- Uztailak 30:**
- 17:00etan, Batzarra
 - 19:00etan, Hitzaldia
 - 23:00etan, Antzerkia
- Uztailak 31:**
- 10:00etan, Tailerra
 - 17:00etan, Hitzaldia
 - 23:00etan, Antzerkia
- Abuztuak 1:**
- 12:00etan, Manifestazioa
 - 23:00etan, Kontzertuak
- Abuztuak 2:**
- 12:00etan, Hitzaldia
 - 17:00etan, Batzarra

BERRIZ

Guraso asko hurreratu ziren haurreskola barrutik ikustera



Gurasoek interesa erakutsi eben Eguzkilore haurreskola barriaren inguruan. Judit Fernandez

Irailean zabalduko ditu atea Berrizko Eguzkilore haurreskola barriak, orain arte Learreta-Markina ikastetxean eskaini daben zerbitzua hobetuz. Herenegun haurreskolako atea ireki zitueen, gura ebenek barrutik ikusi zeien. Jente asko hurreratu zen eraikina barrutik ikusteko gogoz. Guztira, 19 umek emon dabe izena.

400 metro koadroko eraikina da. Eraikin argitsua. Beira berezia erabili dabe, eta berotegi efektua edo lupa efekturik ez dau egiten. Eraikin simetrikoa da gelen banaketari jagokonez. Haurreskola sarreran, langileen bulego eta aldagelak, office bat eta harrera dagoz. Harrera bi gune argi ditu: umeen karroak iztekoa eta umeak janztekoa.

Umeen gunean, bestetik, lau gela dagoz, eta denek jolasgune-rako edo patiorako urtekera daukie. Gela bi urtebete arteko umeendako dira, eta beste biak bi urtera artekoendako. Maila bakotzeko gelek, gainera, lotarako erabiliko den beste gune bat konpartituko dabe.

Hesituta dagoen gunean, jolastoki txikia egokitu dabe kanpoaldean. ■ J.D.

Udalaren bizileku hutsak ahalik eta arinen banatzeko konpromisoa

Azken udalbatzarrean ezker abertzaleko zinegotzi Gorka Camarak udalaren jabetzako etxebizitzak behar dituen artean ahalik eta arinen banatzeko eskatu eban: “Hile bi joan dira ordenantza onartu zenetik, eta oraindino hutsik dagoz. Beharrianak ez dau itxaroten. Lehen-tasuneko kontua dela erizten deusagu”.

Eskaerak irailean aztertu eta urrian banatuko ditue etxebizitza hutsak

Jabier Azpitarte alkateak Camarakesandako agaz bat egin eta etxebizitzak laster banatzeko konpromisoa hartu eban: “Zerrendak osatzen gabilz. Irailean bertan eskaerak aztertze-ri ekingo deusagu, eta gure asmoa bizilekuak urrian banatuta egotea da”. ■ J.D.

Askatasun etorbidea 20 . 48200 DURANGO Tel-Faxa: 94 681 24 92

ESKAINITZA

IZUGARRI BEREZIAK

ERAMAN EZAZU BETIKO KALITATEA

PREZIO ONENAREKIN

DURANGO

Kalte eraginak direla-eta, hogei bat erreklamazino

PSE-EEren egoitzan kalte material handiak eragin zituen atentatua gaitzetsi dau Durangoko Udalak

Uztailaren 9an PSE-EEren egoitzan zartarazi eben lehergailuak eragindako kalte materialak direla-eta hogei bat erreklamazino batu ditue Herriarren Arretarako Zerbitzuan. Halan be, 70 kaltetu egotea aurreikusi dabe. Premiazko informazioa jaso dabe webgunean: www.durango-udala.net. Ordainketa aurreratzeke diru-atala bideratuko da. Kalte material handiak izan arren, ez zen inor zauritu.

Rodolfo Ares Herrizaingo sailburuak bonbak bi-hiru kilo lehergai zituela adierazo eban, eta Aitziber Irigoras alkateak ordubete lehenago herritar batek burua estalita zeroan lagun bat bonbajartzen ikusi eta Udaltzaingoari deitu eutsala. Bizilagunak leherketa aurretik atera zituen Ertzaintzak; gas ihesak sortu eban ardura.

Bozeroale Batzordeak "goitik behera gaitzetsi" eban gertaera, elkartasuna agertuz

Bozeroale Batzordeak "goitik behera gaitzetsi" eban gertaera, PSE-EEri eta kaltetuei elkartasuna azalduz eta "gure herriaren arazoak konpontzeko bide demokratikoak baino ez erabiltzeko konpromisoa" berretsiz. Deitutako elkarretartzean zinegotziak, Rodolfo Ares eta



Udaletxearen aurrean deitu eban elkarretartatzea Udaleko Bozeroale Batzordeak. J.Derteano

Jose Antonio Pastor (PSE-EE), Andoni Ortuzar (EAJ), Leopoldo Barreda (PP), Dani Maeztu eta Jon Abril (Aralar), Mikel Arana (EB-Berdeak) eta Legebiltzarreko lehen-dakari Arantza Quiroga izan ziren, besteak beste. ■ J.D. / A.B.

Gizarte Ekintza Plana egituratuko dau Udalak

Gizarte egoeraren diagnostia egingo dabe, eta preminei aurre egiteko baliabideak aztertu

Gizarte Ekintza Udal Plangintza sortuko dau Durangok. Aurretik, baina, gizarte ekintza "behar den lez" kudeatzeko "preminazkoa" den egoeraren diagnostia egingo dabe, etorkizunean izan leitekezen beharrei aurre egiteko baliabideei buruzkoa ez eze. PPren mozinoa aho batez onartu dabe.

EB-Berdeek ondo deritzoe diagnostikoari, baina "hobeto" "dirua preminadun herritarrei bideratzeari". Gaia Gizarte Ekintza Batzordean eta udal teknikariek aztertu behar dela dinoe. Hainbat gaitan "hausnarketasakona" behar dela dino Aralarrek, "unean erabakia hartu beharrean" eta plangintza "lagungarri" izan leitekela, gai sozialeko hainbat plan "hankamotz" geratu arren. Izan be, oinarritzko gizarte zerbitzuak Amankomunazgoak daroaz.

Gizarte-egoera denpora gitxian aldatu egin dela eta baliabideak bardin mantentzen direla nabarmendu dabe sozialistek, "pertsonal gabezia" somatuz.

Diagnostia behar dela uste dabe: "Akaso, plangintza be bai. Neurri barriak behar dira, dagozenen osagarri. Egoera oso konplikatu da, eta ez dakigu behar den beste lan egiten den aurre egiteko".

Egoera "konplikatu"

Talde Mistoak 2010a "latza" datorela-eta, aldarazpenak itzi eta dirua lotzeko lanean jartzera deitu dau. Amankomunazgoaren parte-hartzeari be "beharrezkoa" deritzoe. Jeltzaileek be egoera "konplikatu" dela nabarmendu dabe eta ikerketa egiteari "bide egokia" deritzoe. Halan be, Udaleko bertako barne baliabideak erabiltzea proposatu dabe jeltzaileek, "batez be, plangintza ahalik eta arinen egin ahal izateko". ■ A.B.

Udalbatzarrak aho batez onartu dau Alderdi Popularrak mozino bitartez egindako proposamena



Ume saharar eta errusiarrei ondoetorria emon deutsee

Uda Durangoko familien etxeetan egingo daben 16 neska-mutil saharar eta bederazi errusiarrei ondoetorria egin deutsee, asteen, udal arduradunek. Opariak banatu ditue eta eskaintako laguntza eta elkartasuna eskertu familia durangarrei. Ekainaren 17an etorri ziren neska-mutil errusiarrek eta irailaren 2a bitartean izango dira Durangon; Elorrioren, beste bederatzia. Sahararrak uztailearen 12an etorri ziren eta irailaren 12a arte egongo dira; Elorrioren zazpi, Berrizen sei eta Zaldibarren bat.

GALLASTEGI

gallastegiharategiak@euskalnet.net

1955 ean sortua

HARATEGI
ARTISAU ERARA

ESPEZIALIZATUA

KALITATEA

Zalduasolo, 8
946 827 038
48250 ZALDIBAR

Antso Estegiz, 1
946 812 247
48200 DURANGO

AZKARGI

GARBIKETAK

Bulego eta Industri mantenimendua
Obra osteko garbiketa
Kristalizatuak eta abar

Goietia, 10 - 2.Esk. - ELORRIO
Tfn.: 682 09 91

Hemen agertu gura badozu

deitu!

94 621 79 02

Tel.: 94 681 01 76
Arteakale, 14 DURANGO

Hitz

liburu denda



oilasko erretegia



Ettxera eramateko zerbitzua
(Durango, Iurreta eta Matiena)



94 681 5828
94 681 5853



Astelehenetik ostiralera
10:00 - 15:00 eta 18:30 - 22:30
Larunbatak, igandeak eta jai egunak
10:00 - 16:00 eta 18:30 - 22:30



Alluitz 1A
Durango

OTXANDIO

Energia barriztagarren diagnosia egingo dabe

Energia barriztagarren ustiapenean Otxandio izan leikezen aukera eta potentzialitateak aztertu guran energia barriztagarriei buruzko diagnosia egingo dau Udalak. Azterketa honetara 2009ko aurrekontutik 6.000 euroko diru-atala bideratu dabe.

Aritz Otxandiano alkatearen berbetan, "helburua herriko energia kontsumo osoan barriztagarriek geroago eta pisu handiagoa izatea da". Azaldu dabenez, minihi-

Herriko energia kontsumoan barriztagarriek gero eta pisu handiagoa izatea gura dabe

draulika, energia eolikoa, eguzki energia eta biomasa aztertuko ditue, energia horreen erabilera indartzeko. "Aurten abiatu dogun bide luze horren helmuga independentzia energetikoa izatea litzake", gaineratu dabe Udaletik.

Gaur egunean indarrean dagoen garapen eredua "krisisakonean" murgilduta dagoelakoan dagoz Otxandioko udal ardura-dunak, eta "garapen eredu barri baten aldeko apustu garbia" egin gura dabe. ■ J.G.

ABADIÑO

Urri hasieran egingo dabe babeseko etxebizitzaren zozketa

Argitaratu dabe etxebizitzaren zozketan parte hartu ahal izango daben herritarren zerrenda

Udazkenean, urriaren 2an, egingo dabe Muntzaratz auzoan eraikitzeak diren Gantza-Zelaietako babeseko etxebizitzak jabeen esleitzeko zozketa ekitaldia.

Datozen hilabeteetan Duran-galdean izango den babeseko etxebizitzaren zozketa bakarrean parte hartu ahal izateko izena emon daben artetik 340 eskaera izan dira onartuak. Udalaren zein Etxebide zerbitzu publikoaren web guneetan argitaratu ditue onartuak izan diren zein kanpoan itzi dituen zerrendak.

Babes ofizialeko 154 etxebizitza dira zozketatuko ditueenak, eta 340 eskaera izan dira onartuak

Abuztuaren 10a artekoa da erreklamazioak aurkezteko eskatzaileek daukien epea

Abuztuaren 10a arteko epea izango dabe, halan gura dabenek, onartutako zerrendari honi beharrazko ikusten ditueen erreklamazioak egiteko. Egun horretara arte izango dira kontsultagai aitatutako zerrendak be.

Gantza-Zelaietan eraikitzea aurreikusita zegoenetatik, babes ofizialekoak bakarrik eraikiko ditue oraingoz

Babes ofizialeko 154 etxebizitza dira urriaren 2ko zozketan esleitu ditueenak. Salmentarako egingo ditueen babeseko etxebizitza horreek izango dira, Jose Luis Navarro alkateak jakinarazi deuskunez, oraingoz eraikitzen hasiko diren bakarrak. Gune berean eraikitzeak ziren prezio tasatuko etxebizitza eta etxebizitza libreak saltzeko gaur egun dagoen zailtasunak aintzat hartuta erabaki ei dau promotoreak babesekoei heltzea. ■ I.E.

Mendiolarrak "casteller"-aren oinarria osatzeko lankide, jaietan

Kataluaniako tradizioko "castellers" ikuskizuna egin eben Mendiola auzoan San Kristobal jaietako Baserritar Egunean, zapatuan. Tarragonako Montblanc herriko taldeko adin guztietako partaideak hasi ziren giza-dorrea altxatzen, eta mendiolarrak be batu ziren dorrearen oinarria indartzera. Zapatuko egitarau luzearen ondoren, 'Aje Egune' izan zen egitarauak jasotzen eban San Kristobal jaietako azkena Mendiola auzoan.



Judit Fernandez

Elorrioko Udalaren GIDA BERRIA!



DHK - ANBOTOK Elorrioko Udalaren gida berria diseinatu dau. Elorriar guztiok eskura dozue herriko gida eguneratua.



ELORRIO

Buzkantz eta Pitxar elkarteak emakumeentzat zabalik dagoz

Buzkantz elkarteko estatutuek ez eben jasotzen emakumeak elkar- teko kide ezin zeitekezenik izan. Halan be, bazkideen botazinoetan beti ezetz urtetan eban. Harik eta igazko abenduko botazinoetan jubilatzeke zegozen bazkide bik ordezkolegez euren alabak aurkez- tu zitueen arte. Estatutuak azter- tu, han kontrakorik ipintzen ez ebalu berriro segurtatu eta bazki- deen botaketa egin eben: baiez- koak irten eban. Beraz, gaur egun emakume bi dagoz igaz 25 urte bete zituen Buzkantz elkartean.

Pitxarren, aurretik be bozka- tuta zegoen emakumeak onartu ala ez: ezetz irten eban. Igazko mar- txoan zuzendari batzordeak barri- ro plazaratu eban gaia, eta batza- rrera agertutako bazkideak, aho batez –botoen %75 behar eben– emakumeak onartzearen alde agertu ziren. Estatutuan aldaketa txiki bat eginda, urtarrelean lau emakume sartu ziren. Pitxar 1974an sortu zen eta 102 sozio dau- kaz. Horreetatik 76k daukie boto eskubidea. ■ J.D.



Igaz 25 urte bete zituen Elorrioko Buzkantz elkarteak.

Kurutziaga Kurutzearen mantentze-lanak hasi ditue

Ondare Ibilbideari begira, Elorrioko kurutze garrantzitsuenetik hasi ditue kontserbazino-lanak

Udalak udazkenean zehar prest izan gura dau herriko eta auzoe- tako historia eta ondare histori- koak ezagutzeko aukera eskaini- ko dauen Ondare Ibilbidea. Ildo horretatik, eta bestela be egin beharra zegoelako, Elorrioko kurutzeak eraberritzeari ekin de- tsie. Ez ditue denak aldi berean berreskuratuko, banan banan eta apurka-apurka baino. Uztailean Kurutziaga Kurutzeko kontser- bazino lanak egingo ditue, “Elo- rrioren dagoen kurutze denetan inportanteena delako, bai artis- tikoki bai historikoki”, Niko More- no alkatearen arabera.

Lanok burutzeko 15.000 euro erabiliko ditue. Kurutzea bera garbitu eta tratamendu bat emon- go deusie, eguraldi txarrak ez

daian harria erasan etorkizunean. Inguruko lurak be garbituko ditue; batez be, kurutzearen oina- rriaren bueltan dagoenak, belar txarrak eta moztuz.

Ondare Ibilbidea udazke- nean zehar prestatu gura dabe: “Inportanteena ibilbidea zuzen eta txukun prestatzea da. Horrek denbora eta lana eskatzen dau, eta horretan gabiltz”. ■ J.D.



R.C.

Adostasunik barik, igazko aurrekontuak luzatu egingo ditue

Gobernu Taldeak adierazo dauenez, irailean hasiko dira datorren urtekoak jorratzen

Igazko aurrekontuak luzatuta amaituko dau urtea Elorriok. Bere sasoian Gobernu Taldeak aurkeztutako proposamena atze- ra bota eban udalbatzarrek, eta ez dabe barririk aurkeztuko. EAJgaz egindako batzarrean ez ziren ados- tasunera iritsi. Irailean hasiko dira alderdi guztiekin 2010eko aurre- kontuak lantzen; igaz baino hile bi lehenago.

EAJk eskatu izan dauen moduan, Gobernu Taldea “ados dago aurrekontuak batzordez batzorde eztabaidatzeagaz”, Niko

hartu eban erabakia, eta irailetik aurrera bide berriak irekiko dira”.

“Ez dabe prozedura aldatu” EAJk ez dau aurrekontuen propo- samen barria eratzeke jardunbi- dean aldaketarik nabarmendu: “Prozedura bardina errepikatu dabe. Gure ekarpenak hotzean proposatzea ez da metodologiarik egokiena. Eurekin batu eta ikus- puntu bera ez dogun gaietan ezta- baitu gura genduen, adostasun batera iristeko. Ez da parte-hartze prozesurik emon”, dino Ana Ota- dui alderdi jeltzaleko zinegotziak.

Gobernu Taldea eta EAJ bereizten ditueen gaien artean AHTa, Hiri Antolamendurako Ordenamendu Orokorra eta eus- kal preso politikoen gaiak dagoz: “Eguneroko jardueretan, Ludote- ka eta abar, ez legoke arazorik, bai- na beste gai horreen gainean ezta- baidatu gura genduen”. 2010eko- tan bardin gertatu ez daiten, “geuk proposatu genduen negoziazi- noak irailean hastea”. ■ J.D.

N. Moreno: “Gobernu Taldeak ez dau proposamen barririk aurkeztuko. Irailetik aurrera bide barriak irekiko dira”

Morenoren berbetan, baina “batzordeek ezin dabe izaera exe- kutiboa eduki”. Horren gainetik, “planifikazio orokorrak egon behar dau, denari osotasun bat emongo deusana”.

Azken hileotan batzordez batzorde berba egin dabe horren inguruan, eta “inbertsino plangin- tza bat be atera dogu, baina ez gara adostasunera iritsi”: “Onartzen dogu udalbatzarrek bere sasoian

A. Otadui: “Ez da egon prozesu parte-hartzailerik. Hori barik proposamena ez genduela onartuko esan geuntsen”

DURANGO

Hizkuntza Escuela Oficial
Eskola Ofizial de Idiomas

matricula oficiala 09/10

Aurre- matricula ofizialerako sobrea hartzeko epea:

Uztailaren 7tik irailaren 5era.

NON	Durangoko Hizkuntza Eskola Ofizialeko Idazkaritzan
Uztailan	09:00etatik 14:00etara
Abuztuan	Itxita
Irailean	09:00etatik 14:00etara / 15:00etatik 20:00etara

Oharra:

a) 2008-2009 ikasturteko ikasle ofizialek uztailaren 10tik irailaren 7ra bitartean entregatuko dute sobrea.

b) Ikasle berriak eta ikasle ohiak matricula orria bete eta beharrezko diren agiriak aurkeztu beharko ditu irailaren 7a baino lehen.

Informazio gehiago HEOeko iragarki-tauletan eta web orrian:

www.eoidurango.net

ATXONDO

Bertan behera itzi eben AHTa egiteko desjabetzak sinatzea

Trenaren proiektua atzeratzeko urrats moduan aurkeztu dabe Elkarlanekoek



Gobernuaren Ordezkaritzako eta ADIFeko ordezkariak izan ziren Udaletxean. Iban Gorriti

Udalak eta AHT Gelditu Elkarlanak egindako salaketa eta alegazioak aintzat hartu eta bertan behera itzi eben joan zen barikurako deituta zegoen desjabetzen aurretiazko akten altxatzea egiteko deialdia.

Prozedimenduan forma akatsak egon direla arrazoituta, eguaztenean Udalean bertan egindako

Prozeduran forma akatsak egon direlakoan eskatu eben aste berean deialdia geldiaraztea Elkarlanekoek

agerraldian eskatu eben desjabetze-aktak sinatzeko prozesua gelditzea. Herritarren 159 alegazioak be aztertu eta erantzuteko epea hartuko dabe, beraz, erakundeek. "Trena egitera datozenei forma eta edukari jagokozen baldintzak goitik behera bete daiezen eskatu" beharra nabarmendu eben Elkarlanekoek. ■ I.E.

MAÑARIA

Aiako Harrietan ibilaldia abuztuaren lehenengorako

Goizeko 09:00etan irtengo dabe Donostiarantz

Abuztuaren 1erako egin dabe Donostialdea ezagutzera joateko hitzordua, eta Aiako Harria naturgunean bi orduko ibilbide gidatua egitea izango dabe ibilaldiko lehenengo geldialdia.

Aiako Harria naturgunea bisita egingo dabe, 11:00etan hasita, eta Donostiara joango dira bazkalordurako

Oiartzun inguruko paisaia eta fauna ezagutzeko aukera be izango dabe izena emoten daben mañariarrek. Udalaren kontu izango da txangorako autobusa eta hamaiketako ordaintzea.

Bazkalordua Donostian igarotzea aurreikusi dabe, eta hondartzan zein alde zaharrean ibili eta gero, itsasontzian egingo dabe hurrengo txangoa: Santa Clara irlara. Eguraldiak edo gogoak lagunduz gero, bainua hartu leiteke bertan, eta 20:30 arte arratsalde-pasa egingo dabe irlan.

Udaletxean eta Liburutegian, edo 94 681 8998 telefono zenbaki ra deituta, uztailearen 20a arte emon leikie izena txangoa egiteko interesa daukiene. ■ I.E.

Arratsaldea Santa Clara irlan igaroko dabe Donostirako txangoa egiten dabenek

ZALDIBAR

Gazagako bide zaharra eta ur hornikuntza sarea

Aurtengo aurrekontuetako diru-atal handienetakoa hartuko daben lanak dira Gazaga auzoko bide zaharra eta ur hornikuntza sarea barriztea. Guztira, 600.000 euro inguruko aurrekontua daukie hil honen erdialdera hasteko ziren lanok, baina aurreikusitako agazko atzerape nagaz hasiko dira. Lanak hil honetako udalbatzarrean esleitzea itxaroten dabela azaldu deusku Mendiagarai alkate jeltzaleak, eta segurutik ikasturte barrian abiatuko ditueela.

Aurrekontuak aurkeztu zitueenean Idoia Mendiagarai alkateak nabarmendu ebanez, helburua bide horretan oinezkoen lehentasuna emotea da. Aldi berean, datozen hilabetetan egingo ditue ur hornikuntza sareko lanak be. ■ I.E.

ABADIÑO

Salvadore jaietarako egitaraua lotu dabe Gerediaga auzoan

Donien-atxa jaso eta txapligu eta trikiti soinu artean hasiko ditue Salvadore jaiak Gerediagan, 20:00etan, abuztuaren 5ean. Ondoren, pintxo gonbita be egingo dabe. Biharamuna, Salvadore Eguna, mezagaz eta ohiko aurrezkuagaz hasiko dabe 12:00etan, eta, arratsaldean, briska txapelketa eta umeendako jolasak izango dira. Urarte plaza-taldeak girotuko dau gau giroa; aurretik, Andoni Egañak, Maialen Lujanbiok, Unai Iturriagak eta Amets Arzallusek eskainitako bertso saioa be egongo da. The Strikes, D.A.R eta Trastornok joko dabe 7an, eta 8an asto lasterketa eta tortilla txapelketa izango dira. Dantzariak eta makailau, mus zein igel txapelketak agurtuko ditu jaiak, 9an.

ATXONDO

Jai giroko abuztua Arrazolan

Andra Maria eta San Rokek jai giroz bustitako abuztua ekarriko dabe Arrazolaran. Abuztuaren 7an igongo dabe donien-atxa, eta ondoren herri-afaria be izango dabe. Andra Maria bezperan, ohiko antzerkia taularatuko dabe, 22:30ean: *Nok aitu?*. Gau giroa, Beste Bat taldeak berotuko dau. Igor Elortza, Xabi Paya eta Onintza Enbeita bertsolarien saioa ez eze, dantzariak eta pilota partiduak izango dira, 15ean, eta Kupela taldearen erromeria. Besteak beste, paella txapelketa, asto probak eta Laja taldeagaz erromeria eratu ditue San Roke Egunerako; 17rako, pailazoak, herri-afaria eta Luhartzegaz erromeria.

DURANGO

Udal irratiko albistegiak "euskaraz bakarrik" izateagaz ez dago ados PP

Durango Irratiko albistegiak "euskaraz bakarrik" izan daitezen hartutako erabakia berraztertzea eskatu dau PPK: "Albistegietarako Euskadi Irratiagaz bat egiteak audientzia apalari ez deustso mesederik egingo, hizkuntza ulertzen ez daben askori entzutea galarazten jako-eta". Gaztelaz emititzen dauen irrati publikoren bategaz (Radio Euskadi edo Radio Nacional) bat egiteari "arrazoizkoagoa" deritzoe. "Irratiaren egoera prekarioa da eta gainerako programazioa elebiduna bada, zergaitik izan behar dau desbardin albistegietan". M^a Jose Balier alkateordeak argitu dau gehiengoz onartu dela Kultura Batzordean bat egitea (12:00-14:00). Eskaria egin behar dau Udalak EITBn. Albistegiekin ez eze magazinagaz be egingo da bat. PPren irratiaren egoerari buruzko "doaneko adierazpenak" ez ditu ulertzen.

DURANGALDEA

Esklerosi anizkoitzari eta azaleko minbiziari buruz



Esklerosi anizkoitzari buruz herritarrak sentsibilizatu eta horretarako preminazko rehabilitazio zerbitzuak finantzatzeko dirua batzen laguntzeko *Busti zaitez!* kanpainaren bitartez igeri egitera egindako deiagaz bat egin dabe Abadiño, Berriz, Elorrio eta Durangon. Bestalde, eguzkia hartzerakoan estetikaren aurretik osasuna lehenestea daukan garrantziaz ohartarazo eben Durangon, azaleko minbiziari aurre egiteko.

BERBAZ >



Roberto Palacios •

▪ Santi-Sapuherrri auzo elkarte

▪ 70 urte

Iban Gorriti

“Auzoko beharrizanei irtenbidea bilatu gura deutsegu elkarteagaz”

Juan Itziarkoan egun osorako egitaraua antolatu dabe uztailaren 25ean ospatuko daben jairako

Auzo elkarte barria ilusinoz sortu dabe Juan Itziarkoan. Auzoa sortu zenetik inguru honetan ez dela konponketarik egin azaldu deuskue Santi-Sapuherrri elkarteko kideek. Indar txikiak batu eta beharrizan horreei irtenbidea bilatzea dabe helburu. Aurten auzoko jaiak berreskuratuko ditue. Hitzordua uztailaren 25erako jarri dabe.

Zelan sortu da elkarte?

Auzoko arazoak konpontzeko bidea dela deritzogu. Orain urte bi inguru alkatea auzora etorri zen, eta harek esan euskun zergaitik ez genduen elkarte bat sortzen. Hainbat batzar eginda, elkartearen mar-tan jartzea erabaki genduen.

Zer helburu daukabez?

Auzoko arazoak konpontzeko indarrak batu gura doguz. Gainera, kultur arloko ekitaldiak be antolatu gurako geunkez.

Lokal bat izatea beharko geunke. Orain arte, 60 lagun baino gehiagok izena emon dabe.

Zer premia daukaz auzoak?

Auzoa orain 53 urte sortu zen, eta harrezkero ia ez da konponketarik egin. Edadetu asko bizi da bertan. Arazo nagusiena auzora ezin direla anbulantziak eta suhiltzaileak sartu da. Errepidean aparkatu eta barrura oinez joan beharra dago. Gorpildun aulkiagaz joan gura dauenak, edo anbulantziak esku-ohean baten bat eroan behar badau, arazoak izaten dira arrapala be egoe-ra txarrean dagoelako. Urteetan auzoa inguratu baino ez dabe egin sarrera-irteeretan pentsatu barik

Udalak inbertsinoetarako diru-atala onartuta dauka.

Auzora 200.000 euro bideratuko ditue. Anbulantzia eta suhiltzaileak sartu ahal izateko proiektua prest dago eta horixe da daukagun premia

handiena. Sarrera hori ez da gainerako ibilgailuendako izango. Farolak be jarriko ditue.

Proiektu horri zer deritzozue?

Egitasmo hori ondo dagoela deritzogu, baina horregaz ez dira auzoko arazo guztiak konponduko. Hoditeria oso egoe-ra txarrean dago, eta diru horregaz ezingo da dena konpondu. Trafiko eta aparkaleku arazoak be larriak dira. TAO-rik ez dagoenez, ez da aparkalekurik libre egoten. Alde zaharra itxi ebenean kotxe asko etorri ziren inguru honetara, eta TAOagaz gehiago.

Hainbat auzo elkarte sortu dira Durangon.

Auzo elkarte ugarik dihardugu lanean, eta gehiago be sortuko direlakoan gagoz. Madalenan be auzokide batzuk elkartzekotan ei dagoz.

Jaiak berreskuratuko dozuez.

Orain 19 urte antolatu ziren

jaiak azkenengoz. Uztailaren 25ean egun osoan zehar antolatuko doguz jaiak. Ilusino handiagaz dihardugu denok lanean. Laguntza handia jaso dogu auzoko merkatariegan-dik. Egitaraua euskaratzen be lagundu deuskue. Txupinazoa, tortilla txapelketa, meza, triki-poteoa, igel txapelketa, herri-bazkaria, umeentzako jolasak, karate txapelketa, txokolatada eta erromeria izango dira. Atsedenal-dian sariak banatuko doguz.

Juan de Iciarri buruzko liburua banatuko dozue.

Jaietan antolatuko dogun bazkaria datozenen artean banatuko dogu liburu batean, Vicente Zavalak Juan de Iciarri buruz idatzitakoa jaso dogu.

Zelakoak ziren behinolako jaiak?

Jai ederrak egiten ziren. Erromeria handiak antolatzen zitueen. Bolatokia be zegoen orain aparkalekua dagoen lekuan. ■ Jone Guenetxea

“Suhiltzaileek eta anbulantziak auzora sartzeko premia handia dogu auzoan”

“Auzoa sortu zenetik orain arte ez dabe ezertxo be konpondu”

EKONOMIA[>]

>DURANGALDEA



Bizkaiko artisautza dinamizatzen eta berpizten laguntzen daben jarduerak lagundu gura ditu onartu daben Foru Dekretuak. Arbaso

Artisautza bultzatzeko deialdi barria egin dau Aldundiak

Bizkaiko Artisautza Erregistroan Arbaso eta Durangaldeko beste 14 artisau dagoz izena emonda

Artisautza sustatzeko dekretu barria onetsi dau Bizkaiko Foru Aldundiak, eta Berrikuntza eta Ekonomia Sustapen Sailaren bitartez 330.000 euro bideratuko ditue deialdi horretara. Bizkaiko Artisautza Erregistroan 244 bat lanpostu mantentzea bideratzen daben artisautzako 111 enpresa dagoz, foru arduradunek azaldu dabenez: igaz egindako azterlanaren arabera, batez beste, elkartetot 2,2 lanpostu dagoz. Zerrendan dagoz Arbaso (Euskal Herriko artisautza tradizionala sustatzeko elkartea) eta Durangaldeko beste 14 artisau. Eskariak irailaren 25a arte egin leitezke.

Berrikuntza eta Ekonomia Sustapen Sailaren bitartez 330.000 euro banatuko dira

111 enpresa dagoz Bizkaiko Artisautza Erregistroan; 244 lanpostu dira, guztira

Bizkaiko artisautza sektorea dinamizatzen eta berpizten laguntzen daben jarduerak laguntzea dau helburu Aldundiko Gobernu Kontseiluak onetsitako Artisautza Sustatzeko Foru Dekretuak. Bizkaiko artisautza jardunaren %98 osatzen dabe Bizkaiko Artisautza erregistroan izena emondako ehundik gora enpresa horreek, argitu dabenez, eta igaz horreetatik 33kegin eben eskaria.

Diru-laguntza hori eskuratu ahal izateko baldintzen artean dagoz, batetik, artisautzako enpresen helbide fiskala, soziala eta ekoizpenekoa Bizkaian izatea, eta, bestetik, lan-taldean 15 langile

finkotik gora ez izatea. Diruz lagundu leitezkeen egitateak atal bitan banatu ditue: artisautza enpresak—2008ko urriaren 1etik 2009ko abenduaren 31 arte hasi eta burututako jarduerak lagunduko ditue—eta toki erakunde eta artisau elkarteak—2009ko urtarrilaren 1etik 2010eko abenduaren 31 artean hasi eta burututako jarduerak lagunduz—. ■ A. Basauri

Helbide fiskal, sozial eta ekoizpenekoa Bizkaian egotea da baldintzetako bat

kolaborazinoa



Jabier Meruelo
CNT sindikatua

Gora hirukoteak

Ez gara harritzen elkarriketa sozialaren mailan dauden ordezkari guztiek (Konfesk, Eusko Jaularitza eta UGT eta CCOO "sindikatuak"). Euskal gizartean sexu arloan ez daukagu ohiturarik hirukoteak egiteko, baina dirudienez hiru hauek oso modernoak dira, eta hori egitea gustatzen zaie. Normalean hirukote bat egiteko hiru pertsonen gozatu behar dute, bestela, ez da egongo akordiorik sexu-jolasa hasteko. Trio bat egiterakoan parte guztiak irabazten dutela suposatzen da, beraz, baina elkarriketa sozialaren kasuan hori, zoritxarrez, ez da gertatzen. Eusko Jaularitza ados dago, Konfesk ere bai, CCOO eta UGTk baita, eta azken bi hauekin agertzen da paradoxa. Sindikatu bi hauek ez dira langileen interesak defendatzen ari, ez dira langile klasearen benetako ordezkariak. Patronalak eta gobernuak mantsotu egin nahi dituzte, euren planak oposizio gabe burutzeko. Nola da posible langileen ordezkariak mahai batean egotea langileriaren etsaiekin, eta zer lortzeko gai izango dira mahai ustel horretan? Ez da elkarriketa demokratiko bat egongo, inposaketa baizik.

Badakigu krisialdian gaudela, eta patronalak aitzakia hori, gobernuaren baimenarekin, langileria gehiago esplotzeko baliatuko du. Baina tristeena CCOO eta UGTrena da. Zer betebeharrak daukate gaur egun? Nire iritziz, langileen eta patronal-gobernuaren arteko lehia mugatzea. Estatu mailan argi ikusten da bi sindikatu hauen menpekotasuna: pasa den maiatzean CCOO eta UGTren patroiek, Ignacio Fernández Toxo eta Cándido Méndez, afari bat eduki zuten. Nola gertatu daiteke hau langileen interesak eta patronal eta gobernuarena desberdinak badira?

Lehen baino lehen batasun sindikala behar dugu; ez tranpa hau elkarriketa sozialez mozorrotuta. "Etsaia gauditu ezin baduzu, elkartu berarekin": ez dakit nori bururatu zitzaion esaldi nazkagarri hori, baina askoz politagoa geratzen da honela: "Etsaiarekin ezin baduzu, elkartu beraren kontra".

Industrias tey

Trataera Termiko Berezia eta Consulting-Tekniko-Metalurgikoa

ALTZAIRU LASTERREAN

Polg. Ind. ARTIA - 48291 ATXONDO - Bizkaia - Tel.: 94 621 55 90 - Faxa.: 94 620 23 70
E-mail: ind_tey@infonegocio.com - www.infonegocio.com/industriastey

Podología

• Oinetako patologiak
• Neurria egindako plantillak
• Oinetako beste hainbat gaitz

Herriko gudarien kalea, 10 - behea
48200 DURANGO
Tel./Faxa: 94 621 54 04

Podología

KULTURA[>]

ANTZERKIA > EMANALDIA

Egunerokoa behatu eta gu guztion komikotasuna oholtzaratuz

Berbarik barik, ikusleei barrea eragiten oso ondo dakien Tricicle talde kataluniarretik sortutako Clownic antzerki taldeko hiru antzezleen azken lana da 2009ko Elorrioko Musikaire jaialdiko hamalau emanaldiak amaitutzat emango dituen: %100 Tricicle ikuskizuna.

Oholtza gainean erritmo bizibizia eta umore unibertsala baliatzen dituzte antzezlanean. Guztion egunerokotasuneko pasarteak, ikuspuntu absurdo eta zenbaitean laino batetik antzeztuta, ikusleengan irribarrea eta barre-algarak eragiten dituzte. Gure egunerokotasuneko egoera eta jarrerak behatu eta gizakia subjektu komikotzat hartzen dute Clownic-en.

Ikuskizun berri honetan, ikusleei ezagun eta barregarrien gertatu izan zaizkien scetch eta egoeak berriro ikusteko aukera eskaintzen dute. Orain urte batzuk sortuak izan arren, gizakiari eragiten dioten gai atemporalak dira, beti arrakasta dutenak dira.

Tricicle taldeak urteetan sortutako 7 ikuskizunen zati bereziekin Eduard Méndez, Antonio del Valle eta Jaume Ortanobas antzezleak arituko dira. Joan Gracia, Paco Mir eta Carles Sans-ek 1979an sortu zuten Tricicle taldeak urteetan eraturako ikuskizun zati berezi eta barregarrienekin osaturako lana da uztailearen 26an, 22:30ean, Elorrioko plazako Musikaire amaitutzat emango duena. ■ I.E.

12 > Peru Magdalena Poesia Egunetan

Euskal Herriko poesiaren hitzordua da asteburu honetan Ean dagoena. Biharko 'Letren berotan' emanaldian hartuko du parte Peru Magdalenak.



13 > Goizane Azpiriren grabatuak

Durangoko Artekalen dagoen Arteka liburudendan daude ikusgai, uztaile eta abuztuaren, Goizane Azpiri durangar gaztearen grabatuak.

POESIA> JARDUNALDIK

Peru Magdalena asteburuko Eako Poesia Egunetan

Eako Poesia Egunak jaialdiko errezitaldi musikatuan izango da durangarra

Uztailaren 18 eta 19an, Busturialdeko Ea herria izango da Euskal Herriko olerkigile eta olerkizaleen bilgune. *Erotismoa eta intimitatea* dira Poesia Egunetako aurtengo gaiak, eta besteren artean *Hutsik* olerki liburua argitaratu duen Peru Magdalena durangarrak parte hartuko du biharko emanaldian: beste hamar poeta eta hiru musikarirekin ari tuko da bihar, Eako frontoian, 22:00etan hasiko den *Letren berotan* errezitaldian Magdalena.

Berba eta musika emanaldi horren ondoren, 23:30ean, prestatzen ari den disko berriako sortutako zenbait kanta eskainiko ditu Anarik kontzertuan.

Aurtengo jardunaldien gaiak intimitatea eta erotismoa izango dira

Bihar gaueko 'Letren berotan' emanaldian izango da Magdalena

Bihar, uztailaren 18an, Olga Novo idazle galiziarra izango da Eako Poesia Egunak hasiko dituen, *Erosen urratsen atzetik: mai-tasuna eta sentsualitatea literaturan* berbaldiarekin.

Egun berean, Irati Jimenez idazleak gidatuko duen bazkalosteko tertulian elkartuko dira Rikardo Arregi, Uxue Alberdi eta Laura Mintegi idazleak, *Eskuak, lekuak, eskulekuak, ezkutalekuak: sexua eta ideologia* gaitzat hartuta.

Euskal Herriko beste hainbat olerkariren ahots eta letrak izango dira egun guztian zehar, uztailaren 18 zein 19an, Eako Herri-jeri Emon Arnasa kultur taldeak antolatzen duen poesia jaialdian.

ARGAZKIGINTZA> LEHIAKETA

Zaldibartarrak dira Argazki Rallyko garaile gehienak

Domeka honetan egin dute XXVI. Argazki Rallyko sari banaketa ekitaldia

Lehengo saria ez, baina Ilargi argazki taldeak eta Udalak duela hogeitasei urtetik hona antolatzen duten Argazki Rallyko aurtengo edizioiko beste sari guztiak argazkilari zaldibartarrek jaso dituzte. Parte-hartzaileetarik asko izan dira herrikoak.

Zaldibartarrek jaso dituzte banatu diren bost sarieratik lau

Hamasei urtetik beherakoei zuzenduriko saria Ibai Madariaga zaldibartarrak jaso du, eta sari orokorren arteko bigarrena eta hirugarrena Zaldibarko Iñigo Bernedo eta Rafa Iraetak jaso dituzte, hurrenez hurren. Zaldibarko parte-hartzaileen artean epaimahaiak Antonio Villanuevaren lana nabarmendu du.

Eskumaldean ikusgai dagoen argazkia da, baina, ekainaren 28an Zaldibarren egin zen Argazki Rallyko 125 euroko lehenengo saria jaso duenetariko bat: Juan Mari Ibarzabal azpeitiarrak lehiaketara aurkeztutako seien arteko bat da 'Soka' gaiaren inguruan Ibarzabalek egin eta aurkeztutakoa.

Argazkizale askorentzat urteroko zita bilakatu da Zaldibarko Argazki Rallya, zalantzarik barik. Gainera, Ilargi argazki taldearen bultzadari erantzuten dioten zaldibartarrak ere urtero-urtero gehiago dira: herriko ume eta gazteek bai baitute argazkigintzarako interesa.

Juan Mari Ibarzabal azpeitiarrak jaso du lehenengo saria



GEURE DURANGALDEA



Arantza Arrazola San Agustingo programatzailea

Kaleko arteak

Cinema Paradison kontatzen denez, batzuetan beharrezko izaten da dena moldatzea, funtsean, sakonean, arimak berdina izaten jarrai dezan. Eta zelanbait horretan gabilta; urteek aurrera egin ahala, ikusten dugu indarra hartzen doala artistek kaleak hartu eta betetzeko modu hau.

Profesionalen artean ere, jaialdi hauek izendatzeko moduak berak ere eboluzioa bizi izan du: "kale antzerkia" ez ezik, "kaleko arteak" dira egiten dituztenak; dantza, musika, zirkua eta magia dira gure herrietako plazak hartzen joan direnak.

Gure inguruko herrietan ere martxa onean goaz; jaialdi oso garrantzitsuak ditugu; Lekeitiokoa, Zarauzkkoa edo egunotan Elorrión dugu Musikaire, besteak beste. Baina egia da, baita ere, eta beharbada aurrekoa baino garrantzitsuagoa, kalerako bereziki sortutako programazioa gero eta ohikoagoa dela gure herrietan. Horixe da gure kasua ere, eta "tontoka-tontoka", 10 urte dira dagoeneko Uda Klean Bizi programazioa abiatu genuela eta kulturaren inguruko interesei erantzuteko aukeratutako ikuskizunak eskaintzen ditugula. Kaleko ikuskizunaren ezaugarri nagusiak ahalbidetzen duena, bidean ikusleak gehitzen joatea eta ikusleengan interesa piztea da, hain zuzen.

Eta hasieran esaten genuenez, zenbaitentzat artearekiko harreman berria izango dena, beste batzuentzako ez da berria izango. Jende batentzat sorrerara bueltatzea izango da; areto edo antzokirik edo kontzerturik ez zegoen garai batera bueltatzea, arteak kale eta plazak hartzen zitueneko garaira. Artista eta ikusleak zirkulua ixtera iristen diren leku horretara bueltatzea; iraganean bezala, eta urteetan metatutako jakintzarekin gainera, hortxe gaude, hasieran bezala, artista eta ikuslea aurrez aurre, zuzenean eta artifizio barik.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

UZTAILAK 24
22:00etan

**IV. GAU
ELEKTRONIKOA**

DJ GONBIDATUA + ETXEKO DJak
DJ FEST. Sarrera: 5 euro.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

OTSOKO
Gaitzerdi Antzerki Taldea
Ezkurdi plazan, Uztailak 18, 22:00etan

MAREMOISELLE ORCHESTRA
Alde Zaharreko kaleetan, Uztailak 26, 20:00etan

San Agustín KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

HITZ

Liburua

ARTEA > ELKARRIZKETA

Zelan sortu jatzu erakusketa hau egiteko aukera?

Arteka denda zabaldu zela eta bertan erakusketak egiteko asmoa zeukielako komentatu eus-tan lagun batek, bertara hurre-ratu eta Monika arduradunagaz egin neban berba. Grabatuak egiten nituela azaldu neutsan, beste egun batean lanak eraku-tsi neutsazen, eta erakusketa egiteko data ipini genduen. Nobedade moduan hartu eben, grabatu erakusketarik ez dabe-lako sekula dendan eduki.

Deskribatu egiguzu erakuske-ta, orokorrean.

Hamabost koadro inguru dira erakusketakoak, guztiak graba-tuaren bitartez landutakoak; horren barruan, silografia, akua-for-te zein urtinta teknikagaz osatutakoak dagoz. Irudietan, eboluzino bat ikusten da; giza silueta bat agertzen da beti, eta askotan agertzen da bakarrik. Nire barruko eboluzinoaren isla da irudietan jasotakoa.

“Hamabost koadro dira erakusketakoak, denak grabatuaren teknikagaz landu dodazenak”

Kontzienteki bilatutako zen-tzua daukie irudiek?

Erdi kontzienteki, bai. Silueta-ren kontuagaz hasi nintzen, ideia bati jarraituz: barru hutsa zen islatu gura nebana. Fisi-koak barik, barrukoak diren zauriak ditue koadroetako figu-rek. Ez neutsen figurei aurpe-girik ipini gura –emakume edo gizon–, ez; figura anbiguo bat gura neban lortu. Batzuetan, intentzino guztiagaz aritzen zara, baina beste batzuetan lan egin ahala ohartzen zara zure lana bide bat hartzen doala.

“Lanak erakusketa baterako antolatzen nenbilela ohartu nintzen eboluzinoaz”

Zelan gertatu da eboluzinoaz?

Hasieran figura txikiak egiten nituen, eta gero eta handiagoak egiten hasi nintzen figura horreek. Bost-sei urte iraun dauen prozesua izan da. Bane-kien barruan irten egiten jatan zeozer neukala, eta, Cuencan egin behar neban erakusketa baterako lanak antolatzen nen-bilela, hasi naz eboluzino hori ikusi eta ulertzen.

Eboluzino horren barri emo-ten dau erakusketak?

Bai, nahiz eta ordenatuta ez dagozen, ikusten da bai era-kusketan eboluzinoaz. Kolore aldaketa bat be badago; hasie-rakoak grisagoak, okre eta lur kolorekoak ziren, eta azkenal-dian sartzen nabil kolore gehia-

“Belgikan, karrerako azken urtean hasi nintzen grabatuak lantzen”

Uztaila eta abuztuan, Durangoko **Arteka** liburu-dendan izango dira ikusgai **Goizane Azpiri** gaztearen grabatuak. Orain bost-sei urte hasi zen Azpiri grabatuaren teknika lantzen, Arte Ederrak ikasketen azken urtea Belgikako Mons-en burutzen egon zenean



Judit Fernandez

go. Badagoz lan batzuk, egin eta denpora batera arte ez naze-nak ohartu euren esanahaia-gaz; denpora batera, distantzia-gaz ikusten dozuz argiago. Urte asko daroadaz figura horreen inguruan lan egiten, eta orain hasi naz konturatzen zer zen egin gura nebana.

Ikusi dauenak zer esan deutsu?
Baten bati irudiak gogorrak iru-ditu jakozela entzun dot, baina ez da jente gehienari sortzen deutsen sentsazioa. Irudi inkie-tanteak badira batzuetan, bai-na zauriak ditueen arren, figu-ren jarrerak oso dira lasaiak.

“Irudi inkietanteak dira, baina zauriak ditueen arren, figuren jarrerak oso dira lasaiak”

“Plantxak osatzea izaten da lan gehien eskatzen dauena. Gero koloreagaz jolastea da kontua”

Eta zure nebak, Aratz Azpirik, zer dino erakusketaz?

Nebak be Arte Ederrak ikasten dau, baina oso desberdin egi-ten dogu lan. Egitekoen artean daukagu elkarrekin lan egitea. Uste dot gogoko dauela. Graba-tuak erakutsi izan deusadaze-nean beti esan izan deust bide horretatik jarraitzeko.

Azalduko deuskuzu zein den grabatuaren teknika?

Antz handia dauka inprenta sis-tema zaharragaz. Hainbat mate-rialekoa izan leiteken trokel edo matrize bat dago oinarrian, eta horretan, zura bada zulatuta eta metala bada azidoak erabi-lita osatzen dozu irudia. Plan-txa eginda, tintatu eta presinoa eginda burutzen da grabatua.

Lan handia egin behar...

Bai, berez plantxak osatzea iza-ten da lanik gehien eskatzen dauena, eta gero, horri kolorea emonda be asko jolastu zeinke. Gainera, edizinoaz egiteko auke-ra emoten deutsu grabatuak, zure lana erreproduzitzeko. Oso aberatsa da, hainbat kalitate eta testura mota lortzeko modua eskaintzen dauelako. Oso lan zehatza da, denporak oso kon-tuan izan behar dozuz; esatera-ko, azidoak luzaroan izten bado-zuz izorratu egin ahal jatzu lana.

Leku oso berezia beharko da grabatuak egin ahalizateko...

Bai, behar dozuna tailer bat da, azidoekin lan egiteko segurtasun baldintza batzuk bete behar direlako, eta tornua bera maki-na handia delako. Nik egiten dodana, Bilbora joatea da: urte-ko segurua ordaindu eta Bil-bao Arte-ko tailerra erabiltzeko aukera dago. Bestetik, graba-tuaz gehiago ikasteko tailer bate-ra joaten naz astelehenetan; Bil-bora horretan be.

“Grabatuan lan egiteko tailer bat da beharrezko, segurtasun baldintza batzuk bete behar dira”

Non ikasi dozu grabatuaren teknika, unibertsitatean?

Arte Ederrak Leioan ikasi neban, baina grabatua lantzen karrera-ko azken urtea Erasmus beka-gaz Belgikan egin neban urtean hasi nintzen. Askok lantzen dabe han grabatua. Leioan ikasten nengoela ikaskide batzuek zuran lantzen eben grabatua, eta ikas-gai haretan ezin izan neban matrikulatu; astein behin lagun hareek azaltzen eusten klasean ikasitakoa. Holan hasi nintzen

grabatuagaz nire esperimen-tuak egiten. Berez, pintura arloan egin neban karrera, bai-na egia esan, engantxatuta nago grabatuagaz.

Zer dauka berezia?

Jolasteko aukera handia eskain-tzen dauela, joko asko emoten dauela. Aldi berean fisikoa be bada, tintekin lanean zikindu egiten zarelako. Aukera asko emoten dau esperimintatzeko. Askotan gitxi gorabehera egin gura dodanaren ideia eroaten dot, eta plantxan hasten naz zuzenean marrazkia egiten.

Liburudenda leku aproposa da erakusketarako?

Gustuko dot nire lana halako lekuetan erakustea: denetariko jentea sartzen da bertan, behar-bada museoetara sartzen ez dena. Jente askorengana ailega-tzeko modua da. Horma bat betetzen dabe koadroek, eta espazioa moldatu egin leiteke.

Noiz egiten dozuz grabatuak?

Orain uda sasoian ez, baina ikasturtean, astelehenero Bil-boko tailerrera joaten naz lan egitera. Baina gatxa da, ze oso gustuko dodan arren, askotan ez dot unea topatzen Bilbora joa-teko. Ordu asko eta aurrekontu handia behar da. ■ I.E.

IKUSENTZUNEZKOA > EMANALDIAK

Klikaire: 4 ikus-entzunezko abuztuko eguenetan Elorrion

Musikaire jaialdiaren egitarauaren amaierarekin abiatuko da Klikaire

Ekain eta uztailan herriko plaza eta kaleak hartzen dituen Musikaire, dantza, musika, zirku eta antzerki jaialdiaren emanaldiak izan dira Elorrion. Uztail amaierara arte hainbat dira oraindik 2009ko Musikaire gozatzeko aukeran ditugunak.

Munduko kulturen Musikaire erakustaldia amaituta, baina, Elorrion bada oraindik ere beste herri batzuetan sortutako lanak ikusteko aukera: Ikus-entzunezkoen emanaldiak ekartzen dituen Klikaire jaialdiak dakarkiguna.

Abuztuaren 6, 13, 20 eta 27an izango diren emanaldietan, Herbehereetan eta Galizian sortutakoak zein Hegoamerikako errealitatea hurbiltzen diguten ikus-entzunezko lanak ekarriko ditu beste urte batez Elorrion, Klikaire jaialdiak. Orain bi urte Herbeheretan ekoizitako *El cazador de dictadores* lana da jaialdian eskainiko duten lehenengoa: gaztelarazko azpitituluekin emango

dute, abuztuaren 6an, Afrikako Txad-en egindako sarraskiengatik Hissene Habré diktadorea epaitua izan zedin aldarrikatzeko Reed Brody abokatuak urteetan egindako lana jasotzen duen Klaartje Quirijns zuzendariaren lana.

Zuzenean jotako musika instrumentala eta irudiak nahasten dituen Galiziako hainbat sortzairenen inprobisazioan oinarritutako *Cró* izeneko ikuskizuna ezagutzeko aukera ere eskainiko digu abuztuaren 13an Klikairek. Bestalde, Donostiako Arteleku filmotekako ikus-entzunezko bideoarte, film labur eta animazioen mostra bat ekarriko dute abuztuaren 20an Elorrion, haizetara emateko.

'El cazador de dictadores' lana da jaialdia abiatuko duena

Abuztuaren 27an, jaialdia ixteko, Miyuko Okabe eta Eneko Etxebarrietaren Hegoamerikan zeharreko bidaiaren ikus-entzunezko kronika jasotzen duen diaporama emango dute Elorrion. ■ I.E.



Abuztuko lau eguenetan emango dituzte ikus-entzunezkoak

Zuzeneko musika eta irudiak uztartzen dituzte Cró lanean

Abuztuak 6
• 'El cazador de dictadores'

Abuztuak 13
• 'Cró'

Abuztuak 20
• Arteleku filmotekako hainbat ikus-entzunezko ekoizpen

Abuztuak 27
• 'Mundua hurbilduz, Hegoamerika tandem batez'

GRAFFITIA > LEHIAKETA

Mutrikun batuko dira Euskal Herriko graffitigile onenak bihar

Seigarrenez antolatu du Euskara Elkarteen Topagunea Federazioak

Uztailaren 18an, bihar, Euskara Elkarteen Topagunea Federazioak antolatzen duen Euskal Herriko Spraikada Graffiti Lehiaketaren seigarren edizioa egingo dute Mutrikun. Hamar taldek hartuko dute parte, eta 1.500, 1.200 eta 900 euroko sariak daude jokoan. Euskal Herriko graffitigile onenen

Dj, graffiti eta break dance tailerrak izango dira aukeran

arteko lehiaketaz gainera, break dance, Dj eta graffiti tailerrak ere antolatu dituzte bertaratzen diren guztien intereseko izan daitezkeelakoan. Egitarau zabala izango da Mutrikuko hitzorduan. Adierazpide berri eta urbanoak eta euskara uztartzeko helburuz antolatzen dute lehiaketa. ■ I.E.



MUSIKA > KONTZERTUA

Emakume musikarien Mademoiselle Orchestra

Uztailaren 26an, Durangoko alde zaharreko kaleetan zehar izango da taldearen emanaldia

Rage Against The Machine, Bjork eta Boris Vian musikarien abestien bertsioak kalean zehar emateko eran sortzen dituen emakume talde frantziarra da uztailaren 26an Durangon izango dugun Mademoiselle Orchestra.

Doinu eta erritmo latindarrak, vals, tango, rock, funk, jazz zein disko ikutua dutenak eskainiko dituzte, Durangoko plaza eta kaleetara hainbat kultur emanaldi atera dituen Uda Kalean Bizi jaialdiaren azken emanaldia izango den kontzertuan.

Zortzi musikari
Frantziako Angers-etik datozen zortzi emakume dira, perkusioa, haize zein soka instrumentuak jotzen dituztenak, eta uztailaren 26an 20:00etatik aurrera Durangoko alde zaharreko kaleetan entzun eta ikusi ahal izango ditugunak. Emanaldi honekin emango da amaitutzat 2009ko Uda Kalean Bizi programazioa. ■ I.E.

Uztailaren 26an, 20:00etatik aurrera, egingo dute emanaldia

Frantziako Angers-en emakume musikariek sortutako taldea da

Abesti klasiko eta ezagunen bertsioak egiten dituzte

"BODEGUILLA"

TRAÑA-MATIENA
Tfn. 681 43 85

gremioen koordinazioa

urtiaga

Bainugelarako komun ontziak eta berogailuak
azulejo, zoladura, teila, zeramika, hormigoi
erakusketa, salmenta eta ipintzea

Solaguren kalea, 3 - tel./ faxa 94 681 44 74 - MATIENA (Abadiño)

**MOMOTXO
TABERNA**

Plateruen plaza, 12
Tel.: 94 681 10 06 DURANGO



Narru Jatetxea

San Agustin 22, Elorrio
Tel.: 94 658 49 34

Gosariak goizeko 8:00etatik.
Pintxoak. Eguneko menua.
Menu bereziak. Kartan, aukerako
okelak txingarretan.



Betixu Jatetxea

Iturburu, 9 Iurreta
Tel.: 94 681 78 47

Astelehenetan itxita. Janariak
jantokian: asteartetik igandera.
Afariak jantokian: ostegunetik
larunbatera. Razioak terrazan.



Pedro Juan

San Antonio, 1 Berriz
Tel.: 94 682 62 46

Eguneko menua.
Karta.
Domeka, astelehen eta
martitzen gauetan itxita.



Plateruena kafe antzokia

Landako etorbidea 4-a
Tel.: 94 603 03 00

Eguneko menua astelehenetik
zapatura.
Taldeentzako menu adostuak.
Askariak.

Jatetxe
gida



Jon Soloeta Huri-Barrena Jatetxea

Huribarrena 8, Otxandio
Tel.: 945 45 01 25

Karta. Ardoak.
Eguneko menua.
Asteburuetan menu berezia.



Templete Jatetxea

Hotel Kurutziaga, Durango
Tel.: 94 620 08 64

Ospakizunak.
Karta.
Eguneko menua.
Menu berezia.



Ganeko Etxe

Elizondo, z/g Berriz
Tel.: 94 682 40 27

Aintzinako baserri baten gerizpe
gozoan, etxeko moduan sentitzeko.
Arrain errea kartan.
Eguneko menua: 8 euro.

Hemen agertu
gura
badozu,

DEITU

94 621 79 02

AMALURRA[>]

Mancomunidad de la Merindad
de Durango
Durangoko Merinaldearen
Amankomunazgoa



Kontsumo fantasmari aurre eginez

Energia kontrolatzea garrantzitsua da uda partean; etxe-tresna batzuek kontsumitzen jarraitzen dabe amatatu arren

Energiaren erabilpenak zeresan handia dauka gure poltsikoetan, baina baita ingurunean be. Hainbat faktore hartu behar dira kontutan errespetuzko kontsumo bat egiteko, eta kontsumo fantasmari aurre egitea da horreetako bat.

Etxetresna elektriko askok –telebistak, bideoak, mikrouhin labeak eta ordenagailuak, adibidez– energia kontsumitzen jarraitzen dabe amatatuta egon arren, korronterako hartunera konektatuta egoten badira. Martxan ez egoteak, ez dau esan gura indarrik ez darabileenik. Stand-by egoeran egon leitekez horreetako asko; batzuk era aktiboan, eta beste batzuk pasiboan. Ez dau emoten kontsumitzen dabenik, baina bere horretan segitzen dabe. Horregaitik deitzen jako kontsumo fantasma.

Stand-by aktiboan, tresna amatatuta dago baina lanen bat egiten jarraitzen dau. Bideoekin gertatzen da hori, ordu konkretu batean grabatzeko agintzen dogunean. Stand-by pasiboan, aldiz, aparatua itzalita egongo da, baina elementuren bat aktibo geratzen da: mikrouhin labeetan erlojuak hartzen dau paper hori, esate baterako.

Telebista, estereo-ekipoa eta bideoa deskonektatzeko, tresna bakoitzaren etengailua erabili beharko litzake, aipatutako kontsumo ikustezin hori saihesteko. Etxetik kanpora denporaldi luzea emoterakoan, oster, tresna horreek energia iturritik deskonektatzea komeni da. Udako oporraldian kontuan hartzeko erizpidea da honakoa.

Ingurumena zainduz

Udan sortu ohi diren tenperatura altuekin normala da, gaur egun, beroa murrizteko neurriak hartzea. Haize freskoa bermatzen daben etxe-tresna ugari dagoz merkatuan, baina horren ezaugarriak ezagutuz gero, ekarpen handia egin leikio ingurumenari. Tresna bat erosterakoan, energia kontsumoaren mailari begiratu behar jako; izendatuta ageri dira kalte txikiak egiten dabenetik handienara. Kontsumo txikiak daukien A edo A+ mailakoak izaten dira.

Horretaz gainera, eragina dauka sistema edo tresna zaharrak kendu eta barriak ipintzeak be. Zenbait erakundek laguntzak emon ohi ditue, gainera, kasu batzuetan.

Etxetik kanpora denporaldi luzea emoterakoan, tresna honeek energia iturritik deskonektatzea komeni da

Etxe-tresna bat erosterakoan energia kontsumo mailari begiratu behar jako; A edo A+ mailakoak dira kontsumo txikiak daukienak



GARAI

MALLABIA

MAÑABIA



2009

anboto

MALLABIKO
UDALA



ONDO PASATU ANDRA MARI JAIETAN!

mallabiko jai egitaraua

ABUZTUAK 14, Umeen Eguna:

•12:00-14:00 eta 16:00-18:00

Umeendako parke berezia:

puzgarriak, txalupak, kuads, jumping... parkean.

•18:00 Bits festa parkean.

•19:00 Txupinazoa (A.D. Mallabia F.T-ko kide batek botako dau).

Ondoren, euskal preso eta iheslarien aldeko enkartelada.

•19:30 Txokolatada plazan.

•22:15 Pilota partiduak Mallabia I Kirol Etxean:

- Berasaluze IX-Cecilio
- Olazabal-Urberuaga

- Mtz. De Irujo-Beroiz
- Xala-Zubieta

Mallabitarrentzat, sarrerak abuztuaren 3tik 10a bitartean 20 euroren truke salgai. Ikasle, langabetu eta jubilatuentzat, 15 euroren truke Udaletxean. Pertsona bakotxari bina sarrera emongo jakoz, gehienez. Leihatila 21:30etik aurrera zabalduko da eta hemen sarrerak denentzat 25 eurokoak izango dira.

•00:00 Erromeria. Plazan:

- Bide Batez.

ABUZTUAK 15, Andra Mari Eguna:

•11:00 Meza nagusia.

•12:00 Trikitilariak eta bertsolariak.

Jarraian euskal herri-kirol erakustaldia Mallabia I Kirol Etxean:

Aizkoran:

- Jabi-Bixente
- Biurri-Onandi

Gaztetxoan herri-kirolak

A taldea:

Aizkoran: Zelai III

Harri-jasotzen: Onintz

Txokor-batzen: Gartxot

B taldea:

Aizkoran: Zelai IV

Harri-jasotzen: Elordi

Txokor-batzen: Goiketxe

•17:30 XIX. Harri-jasotze Saria:

100 kiloko zilindro zaharra eta

100 kiloko bola.

Parte-hartzaileak:

- Belioso (Bizkaia)
- Izeta II (Gipuzkoa)
- Izeta III (Gipuzkoa)
- Izeta IV (Gipuzkoa)
- Goikoetxe (Gipuzkoa)
- Urrutia (Nafarroa)
- Igoa (Nafarroa)

•17:30 Tute, mus, briska eta 'burro' txapelketa tabernetan.

•22:00 Irrintzi taldeagaz

bilbainadak, plazan.

•23:30 Su artifizialak (bouqueta).

Ondoren, Erlaxi taldeagaz

erromeria, plazan.

ABUZTUAK 16, San Roke Eguna:

•11:00 Meza nagusia.

•11:00 X. Paella Lehiaketa.

•17:00 Herri-jolasak, plazan, eta ondoren, partidu sorpresa

Mallabia I. Kirol Etxean.

•20:00-01:00 Txerri errea eta sagardotegi ibiltaria mallabitar guztientzat (sagardoa eta erromeria).

ABUZTUAK 17, Nagusien Eguna:

•11:00 Meza nagusia.

•12:00 Zabale, Larrañaga eta Etxebarria bertsolari-trikitilarien saioa.

•13:30 Jubilatuen bazkaria probalekuan, eta, ondoren, trikitilariak egongo dira nagusiei beste saio bat eskaintzeko.

•17:45 Open pilota partiduak, Mallabia I pilotalekuan:

- Lehenengo partidua: Aurtenetxe-Perosanz Arrese-Olalde
- Bigarren partidua: Beitia-Aldape Azpiri-Landaburu

ABUZTUAK 20tik 24ra:

XXII. Idi-proba Txapelketa

Sari nagusia: 1.600 €, garaikurra, txapela eta manta.



EXCAVACIONES JON

MOTU GUZTITUTARCI INDUSTRIAL HONDAKINDUELA

Jon Garitagoitia Gallastegui

Industria 1/1 • GENE • 48269 MALLABIA

Tel: 943 17 66 69 • Fax: 943 17 66 69



maquinaria OIZ, s.l.

MAKINA BERRI ETA ERABILIEN SALEROSKETA

ARITZ GARCIA SARRIUGARTE • Mugikorra 620 95 80 07

Goitondo Industrialdea
19 Pabillioia
Tel. eta Faxe 943 17 71 57
48269 MALLABIA (Bizkaia)
E-mail: maquinariaoiz@telefonica.net



MESSER

JAVIER UGARTE
Mug. 629 546 004

UGARSA, S.L.

GAS TEKNIKOAK • SOLDATZEKO MAKINAK • HARIAK ETA ELEKTRODOAK

Mallabarra Ind. z/g - 1. solairua • 48269 MALLABIA (Bizkaia)
Tel: 943 17 66 69 • 943 17 41 50 • Fax: 943 17 66 69
e-mail: ugarza@euskadireit.net • www.ugarza.net

Futbito taldeak abiaraziko ditu jaiak

Denboraldi honetan maila bat gorago igo da taldea



Denporaldia borobiltzeko Mallabia futbito taldeak jaiei hasiera emongo deutse. Denporaldi honetan kategoria igoera lortu dau talde mallabitarrek, eta egindako lanaren errekonozimendu legez txupinazoa jaurtiko dabe, abuztuaren 14an, 19:00etan.

Futbito taldeko entrenatzaile Carlos Pérezek azaldu deuskunez, pozik hartu dabe albistea: "Oraindik ez dakigu nork irakurriko dauen pegoia. Testu laburra izango da, eskerrak emon eta jaiei hasiera emoteko", azaldu deusku entrenatzaileak.

Herrian kirol arloan hamabi urteotan lan handia egin dabela dino Pérez entrenatzaileak, eta ahalegin horren errekonozimendua dela jaietan egingo deutseena. Taldea sortu zenetik dabil Carlos Pérez taldea entrenatzen; orain hamabi urtetik hona. Lehenengo sei urteetan federatu barik jokatu eben, eta orain beste sei urte daroetz federatuta.

Taldeak bi bider jarraian lortu dau mailaz igotzea. Durangalde osoan Goren Mailan dihardueen talde bi baino ez dagoz: Kurutziaga eta Mallabia. Uda partean atsedendia hartuko dabe eta indarbarrituta ekingo deusie lanari datorren denporaldian.

Jaien eztanda islatzen dauen kartela irabazle

Maier Iriondok irabazi dau jaietako kartel lehiaketa; herrian nagusitzen den jai-giroa irudikatu gura izan dau

Maier Iriondo 31 urteko zaldibartarrak (San Lorenzo auzoa) irabazi dau aurten Mallabiko kartel lehiaketa. Bere lana aurkeztu eban bigarren biderra zen -igaz aurkeztu eban, lehenengoz- eta aurten bere irudia hautatu dabe jaien erakusgarri egokientzat jota.

Irudiak 'Eztanda' izenburua dauka, eta jaietan herrian lehertzen den festarako gogoia irudikatu gura dau. Elizako kanpandorrearen gainaldean apurtuko den suzko bolak izar koloretsuz jantziko dau

Eibarko San Andres zein San Joanetako eta Elgoibarko jaietako kartel lehiaketetan be parte hartu dau

Mallabiko zerua. Handik aurrera, ekitaldiz betetako jaiei hasiera emongo deutsee mallabitarrek: "Jaietan nagusitzen den giro alaia islatu gura izan dot 'Eztanda'ren bitartez. Bestalde, elizako kanpandorrea aukeratu dot, herrian gehien eta goren ikusten den eraikina delako", azaldu deusku Iriondok.

Iriondo ustekabeen harrapatu dau sariak: "Ez neban kasualitatez be itxaroten. Igaz ez neban zortetik izan, eta aurtengoa sorpresa izan da". Aurretik, Eibarko San Andres zein San Joan eta Elgoibarko jaietako lehiaketetara be aurkeztu izan da. Udan jai beste kartel lehiaketa egoten dira Euskal Herrian, baina oraingoz Mallabira aurkeztu dauen horixe izango da azkena: "Etorkizunean jarraituko dot hango eta hemengo lehiaketetan parte hartzen, baina uda honetarako nahikoa da".



BETEARTE

51-3342 errep., pk. 38 • Arcitio Garaia
48269 Mallabia (Bizkaia)

EGOKI, S.L.
OKINDEGIA GOZOTEGIA



Artelz Kalea, 1
Tel. 943 17 52 70
MALLABIA

BOSCH Service

Bosch Car Service

- Gasolina injezioa
- Diesel injezioa
- Elektrizitatea / Elektronika
- Pizketa
- ABS, ESP Freoak
- Mantenu mekanikoak
- Motor mekanika
- Hozte sistema
- Ordutegia: 08:00etatik 20:00etara

Uranga Autoak
Polig. Gohindo, P. 1 Berr
48269 MALLABIA (Bizkaia)
Tel.: 943 17 97 17
Fax: 943 17 97 29

- Argidun errotuluak
- Autoen errotulazioa
- Barne seinaleztapena
- Neon
- Inpresio digitala
- Fresa bidezko mozketa eta grabatua: formatu handia

ROTEK
rótulos

Fernando Sánchez Alcoba
656 78 19 52

Tel./Faxa: 943 18 00 36 • e-mail: rotek@telefonica.net
Goitondo Behekoa Ind., C1 partz. - 5 behea • 48269 MALLABIA (Bizkaia)

Herri-kirolak, herria eta kirola batuz

Aizkora eta harri-jasotze saioekin batera, Aspek pilota profesionaleko partidu interesgarri bat antolatuko dau

K irolak garrantzia berezia izango dau aurtengo Andramari jaietan. Adibidez, ez dago zertan Gasteizko jaietara joan pilota partidu erakargarriekin gozatze-ko; Mallabian bertan be punta-puntako pilotarien jokoa ikusi ahalko da. Abuztuaren 14an, Mallabia I Kirol Etxean gaueko 22:15ean hasiko den jaialdian, Xala eta Zubietak Martinez de Irujo eta Beroizen kontra neurtuko ditue indarrak partidu nagusian. Lehenengo partiduan, barriz, Berasaluze IX-Cecilio bikoteak Olazabali eta Urberuagari aurre egin beharko deutsee.

Martinez de Irujok eta Beroizek, Xala eta Zubietaren kontra jokatuko dabe abuztuaren 14an

Mallabitarrentzat sarrerak abuztuaren 3tik 10a bitartean egongo dira salgai Udaletxean, eta aitatzekoa da langabetu, ikasle eta jubilatuak 15 euroren truke lortu ahal izango ditueela; gainerako herritarrek, aldiz, 20 euroren truke. Leihatilan salgai egongo diren sarrerak 25 euro balioko dabe.

Aizkoran eta harri-jasotzen

Andra Mari Egunean, eguerdian, barriz, euskal herri-kirolen erakustaldia ikusi ahal izango da Mallabia I Kirol Etxean. Lehenengo, Jabi-Bixente bikotea Biurri-Onandi bikotearen kontra ariko da aizkoran. Eta, lehia horren ondoren, taldekako herri-kirol lehiaketa jokatuko da. Alde batetik, A taldean, Zelaia III (aizkoran), Onintz (harri-jasotzen) eta Gartxot (txokor batzen) ariko dira. B taldean, barriz, Zelai

IV (aizkoran), Elordi (harri-jasotzen) eta Goiketxe (txokor batzen) ariko dira nor baino nor gehiago.

Arratsaldean, 17:30ean hasita, Mallabiko XIX. harri-jasotze saria jokatuko da. Bertan izango dira parte hartzen Belioso bizkaitarra, Izeta II, Izeta III, Izeta IV eta Goiketxe gipuzkoarrak, eta, Urrutia eta Igoa nafarrak. Garaileak 800 euro, garaikurra eta txapela eskuratuko ditu; bigarren eta hirugarren sailkatuek, garai- kur banagaz batera, 650 euro eta 500 euro, hurrenez hurren; laugarrenak, azke- nik, 400 euro.

Abuztuaren 17ko astelehenean barriro be esku pilotak hartuko dau protagonis- moa. Izan be, Open pilota partiduak joka- tuko dira 17:45etik aurrera. Lehenengo partiduan Arresek eta Olalde Aurtenetxe eta Perosanz izango ditue aurrez aurre. Bigarren norgehiagokan, barriz, Beitia eta Aldape Azpiri eta Landabururen aurka lehiatu beharko dira.

XXII. Idi Proba

Andramari jaien ondoren, ohiturari eutsiz, idi-probek aurten be izango dabe azken urteotan lortutako lekua. Abuztuaren 20tik 24ra XXII. Idi-proba Txapelketa joka-

Aizkoran, besteak beste, Jabi-Bixente bikotea Biurri-Onandik osatutakoaren aurka lehiatuko da

tuko da. Irabazleak 1.600 euro jasoko ditu. Horregaz batera, txapela, garaikurra eta BBKren mantak izango ditu saritzat. Bigarrenak 1.400 euro eta garaikurra, eta hirugarrenak 1.200 euro eta garaikurra.



I.G.



JUBILATUEN ETXEA

☎ 943 17 66 02 • MALLABIA

Longa Nagusi Nekazalturismoa

Irune Irazola - Juan Fco. Antxia
Geria Auzoa (Trabakua)
Mallabia

943 17 38 55
699 00 89 09

HERRIKO TABERNA

- plater konbinatuak • bokatak • pintxoak eguneko platera • kazolak.
- bazkariak eta afariak enkarguz • menu bereziak
- astearte arratsaldez itxita

Askalde 3 • Mallabia • Tel: 943 17 49 52

GRAPHIDAPS SIA

SERVICIOS DE IMPRESION

Goitondo Goikoa industrialdea z/g.
Ermua-Markina erp.
48269 MALLABIA (Bizkaia)
Telefonoa 943 170 168
Faxa 943 170 050

IMPRENTA • INPRIMATEGIA

- tarjetas • gutunak • tarifas
- calendarios • katalogoak •
- karpetak • sobres • aldizkariak
- oroigarriak • eta abar



Energia barriztagarrien ibilbidea Oizko Parke Eolikoan

Ibilbide energetiko batetik abiatuta, Eólicas de Euskadik (Iberdrola Renovables enpresa %100ean) parke eoliko bat 100.000 lagunendako energia sortzeko gai dela erakusten deuto milako pertsonari

Gaur egun energia eolikoa da nagusi eta ondasun barriztagarri eta ugaria erabiltzen dau lehengai moduan: haizea. Haize-energia bi era desbardinetara baliatzen da. Horreetako batean, aire-ponpa batzuek putzuetatik ura ateratzen dabe, haizearen laguntzaz; bestean, errotek sorgailu elektrikoa daukie eta haizea dabilenean energia sortzen dabe: aerosorgailuak deitzen dira. Energia elektrikoa sortzen daben errota, geroago eta gehiago jartzen direnez, ia ohiko bihurtu dira gure inguru honeetan.

Hori dela-eta, urtero urteera gidatuak antolatzen ditue energia eolikoa gertutik ezagutzeko aukera eskaintzeko. Gai horretan gehiago sakondu gura dabenentzako zuzenduta dagoz. Lehen hezkuntza eta unibertsitateko taldeak izaten dira,

batez be, bisita gehien egiten dituenak.

Parke eoliko bakotxean, Eólicas de Euskadik ibilbide berezia osatu dau. Urteerari hasiera emoteko, ohiko energia eta energia barriztagarrien gaineko azalpenak emoten deutez bisitariei. Energiaren zentzuzko erabilerak eta birziklatzeak be euren tartetxoa izaten dabe sarrera horretan.

Lehenengo ekintzan, "NIRE egunekeo energiaren kontu-ikuskaritza" izenekoan, bisitariei energia munduaren barruan daukan garrantziaren eta egun bakarreko ohiturek daukien energia gastuaren barri emoten deute. Informazio hori aitita-amamaren beharizan energetikoekin alderatzen dabe. Une horretan hasten da ibilbidea. Plazakolako instalazio hidraulikotik

Markinan dagoen eguzki-sistema termiko batera joaten dira. Amaitzeko, in situ, Oiz Parke Eolikoaren ezaugarriak ezagutzeko aukera izaten dabe. Parkearen diseinua, inguruagazko ingurura, aerosorgailuak, ingurumen-zaintzak... aztertzeke erraztasun guztiak eskaintzen ditue. EAEko lau parke eolikoan laguntzagaz, 400.000 lagunek kontsumitzen daben energia ekoizten dabe, eta horren barri be jasotzen dabe bisitariek.

Ibilbidea oinez
2008an 7.000 lagun baino gehiagok egin eben ibilbidea. Batzuek autobusean egin baebe be, askok ibilbidea oinez egin eben. Parke bakotxean, ingurumen interpretaziorako ibilbideak diseinatu ditue, honeek jarraituz haranetik mendile-

rroraino oinez igotzeko. Taldeagaz batera monitoreara joaten da, beraz, inguruan dagoen animalia eta landareen gaineko informazioa zuzenean jasotzeko aukera dago.

Parkeetako energia
Eólicas de Euskadik martxan dituen parke eolikoekin, 400.000 lagunendako energia ekoizten dabe. Egun batzuetan energia gitxi sortzen da; izan be, haizea ezinbesteko elementua da energia ekoizteko. Beste batzuetan, barriz, milioi bat lagunek kontsumitzen daben beste energia ekoizteko gai dira. Ondasun barriztagarria eta ugaria da haizea. Haizearen erabilerak ikatzarena baztertzen dau. Energia bera sortzeko, ikatzagaz 400.000 CO2 tona igortzen dira atmosferara, petrolioagaz 53.000 tona.

2008an 7.000 lagun baino gehiagok Eólicas de Euskadik sortutako ibilbideak bisitatu zitueen. Parke bakotxak bere ibilbidea dauka

Oizko Parke Eolikoak 90.000 lagunek kontsumitzen daben beste energia ekoizten dau, 87.000 CO2 tona "saihestuz"

EÓICAS DE EUSKADI ENPRESAK GAUR EGUN FUNTZIONAMENDUAN DITUEN PARKEAK				
Parke eolikoa	Potentzia	Instalazio urtea	Energia	Urtero ekiten den CO2 emisino kopurua
ELGEA-URKILLA (Araba-Gipuzkoa)	60MW	2000-2003	200.000 pertsonarentzat	182.000 tona
OIZ (Bizkaia)	34MW	2003-2007	90.000 pertsonarentzat	87.000 tona
BADAIA (Araba)	50MW	2005	120.000 pertsonarentzat	116.000 tona

mañarik o jai egitaraua

ABUZTUAK 14, barikua:

- 19:30 Sagardotegi ibiltaria.
- 22:30 Kontzertua:
 - Trastorno
- 24:00 Kontzertua:
 - Tributo Queen
- 00:30 Erromeria:
 - Laiotz

ABUZTUAK 15, zapatua:

- 10:00 Plater-tiro lehiaketa.
- 11:00 Meza.

Ondoren, emakume eta gizonen dantza taldeen saioa.

- 17:00 Umeendako karabina tiroa (Mugarra ateneo zinegetikoa).
- 18:00 Pilota partiduak: Andra Mari Txapelketaren finalak.
- 19:00 Goloka Park kale-antzerkia.
- 23:00 Kontzertua:

-Oskorri

•01:30 Erromeria:

- Triki Ta Ke

ABUZTUAK 16, domeka

- 11:00 Meza. Ondoren, dantzariak.
- 12:00 Umeendako jokoak.
- 12:30 Herriko Pilota eta Pala Txapelketaren finalak.
- 16:00 Umeendako jokoak.
- 17:00 Briska eta igel txapelketa.
- 17:00 San Humberto ehiza erakusketa.
- 19:30 Dantza alardea.
- 23:00 Erromeria:
 - Trikizio

ABUZTUAK 22, zapatua:

- 16:00 XXI. Andra Mari Saria txirrindulari lasterketa.

Abuztuaren 14a, jaizaleen urteko egun desiatuena

Txirrindulariek XXI. Andra Mari Saria lehiatuko dabe aurten

Eskualdeko jaiei jarraipena emoteko, Mallabiko festekin batera helduko dira Mañariko aurtengo jaiak. Abuztuaren 14an, sagardotegi ibiltaria izango dau 19:30ean herriko kaleetara gerturatzen denak; eta gauez, adin eta gustu guztietako jendea asetzeko moduko hainbat kontzertu izango dira.

Abuztuaren 15ean, barriz, plater-tiro lehiaketa jokatu da 10:00etatik aurrera, eta ordubete geroago, meza ospatu da. Elizkizunaren ondoren, dantzariak euren ekitaldia eskainiko dabe plazan; urteko aukera bakarra izango da herriko gizonezkoen dantza taldea lanean ikusteko. Arratsaldean, barriz, 18:00etatik aurrera, eskupilotako Andra Mari Txapelketako finalak jokatu dira.

Abuztuaren 16an, egun zoragarria igarotzeko aukera paregabea izango dabe umeek, eurei zuzendutako jolasekin. Eguerdiko 12:00etatik aurrera eta arratsaldeko 16:00etatik aurrera izango ditue jolasok. 12:30ean, barriz, herriko pilota eta pala txapelketetako finalak jokatu dira, eta 17:00etan ekingo deutsee briska eta igel txapelketak jokatzeari. Ordu berean hasiko da San Humberto ehiza erakusketa. Eta, sei egun geroago, abuztuaren 22an, txirrindularitza lasterketa izango da Mañarian: XXI. Andra Mari Saria.



Gaztelu
CARPINTERIA

Elondoz eta gaztainondoeko leihoak, geuk eginikoak

AROTZERIA ORO HAR:

- Ate blindatuak
- Tarimak
- Barrualdeak
- Zokaloak

Aldabarrena Auzoa • MAÑARIA • Tel.: 94 681 81 74
Faxa: 94 620 03 58 • Sakelekoa: 656 787 524

ERREKONDO

eguneko menuak astelehenetik ostiralera
asteburuetan bazkariak eta afariak enkarguz
espezialitatea: txuleta errea

Andra Mari, 1
(Dantzari izandakoa)
Tel.: 94 681 85 77
MAÑARIA

Pinturas Sagasta
Pinturas

Pintura apaingarri eta industrial

- Funtzionariko proiektu berriak (gipuzkoar, bizkaitar, ...)
- Ene gurekin bazeu ere kanpoko proiektuak (lokala, zabalak, ...)
- Funtzionariko proiektu berriak (gipuzkoar, bizkaitar, ...)

Sagasta auzoa
Anbe Goikoa
48220 ABADIÑO - Bizkaia
Tel.: 629 143 944

Oskorri da aurtengo jaietako sorpresa

Musikaz gainera kale-antzerkia eta dantza alardea



Musikak eta bereziki erromeriek, leku nabarmena izango dabe 2009ko Mañariko jaietan. Festetako lehen egunean bertan, Trastorno eta Tributo Queen taldeek kontzertuak eskainiko ditue, 22:30ean eta 24:00etan, hurrenez hurren. Kontzertu horreen ondoren, Laiotz taldearen erromeriak dantzan jarriko dau goizaldeko 02:00etan kalean zehar geratzen den oro.

Abuztuaren 15ean, barriz, Goloka Park kale-antzerkiaz gozatu ahal izango dabe antzerkizaleek 19:00etatik aurrera. Eta gauez, Oskorri euskal talde beteranoak urteetan zehar ezagun egindako kantak abestu ahalko dira talde bilbotarrak 23:00etan eskainiko dauen kontzertuan. 01:30ean, barriz, Triki Ta Ke taldearen erromeriaren doinuak dantzatzu agur esan ahalko jake 2009ko jaietako bigarren eguneko ekitaldiei.

Eta jaiak amaituz joan arren, abuztuaren 16an be izango da kultur ekitaldirik

Mañariko kaleetan zehar, arratsalde zehar gauez. 19:30ean hasita, dantza alardeagaz euskal kulturaren sustraiak berreskuratuko dira beste behin, eta 23:00etan jaietako hirugarren eta azken erromeriaren konpasak Triki taldeak astinduko ditu.

Oskorri talde bilbotar opetsuak kontzertua eskainiko dau, denboraren poderioz ezagun egin diren kantekin

Erromeriak jaietako arima

Hiru jai-egun eta hiru erromeria izango dira aurtengo Mañariko jaietan. Erromeriak bere jatorriko esangura galdu dauela esan leiteke, formari jagokonez bai behintzat; garai batean, santuren baten omenez bere baselizara joatean egiten zen dantzaldia zen-eta erromeria. Baina, arima, barriz, berbera izaten jarraitzen dabe erromeriek, dantza eginez une atsegin bat igarotzea, hain zuzen be.

Juan Ramon Azkonizaga
Ortuzar auzoa, 1 - IZURTZA Biltegia: 94 681 06 52

Banatzaila:

 Durangaldeko usaina ezin dizugu transmititu, baina Durangaldea entzun, ukitu eta ikusteko, ...

HARATEGIA - URDATEGIA BIZKARRA



BASERRIKO OKELA TXORIZOAK ETA ODOLOSTEAK

aserradero zugazagoitia agirre maderas

Aldegoiena, 2-a
48212 MAÑARIA (Bizkaia)
Tel-Fax: 94 681 87 98

3 Bikain

MORTEROS Y REVOCOS

Aldebarrena auzoa
Eskanek: 946 20 07 62-90
Admin.: 946 20 24 96 - 946 20 00 78
48212 Mañaria (Bizkaia)
info@bikain.com
www.bikain.com



Launa

www.bodegaslauna.com
info@bodegaslauna.com
Tel.: 94 682 41 08

 **Grupo Amantegi**

 **Zalloventa**
Grupo Amantegi

 **Canteras Amantegi**
Grupo Amantegi

 **Euzko Hormigones**
Grupo Amantegi

Dantza egiteko jai proposak

Erromeriak ugari izango dira

Txapligo eta kanpai hots artean altxatuko dabe Garain donien-atxa, uztailaren 24an. Ezpatadantzarien saioaren ondoren, trikitilariak giroa alaituko dabe. Gaueko 22:00etan kontzertuak izango dira, eta gauero legez goizaldera arte dantzan egiteko erromeria be bai.

Zapatuan, uztailaren 25ean, goizeko kalejiraren ondoren, 11:00etan meza nagusia izango da San Migel elizan; ondoren, Santiago Imajinaren prozesinoa Elizabarriraino apostoluari omenaldia eginez, *Agintariena* eta *Gernikako arbola* dantzatzuz. Ezpatadantzariak erakustaldia eskainiko dabe herriko plazan. Domekan, Elizabarrin izango da meza nagusia, eta ondoren bezperako ikuskizunez osaturik Santiago Imajinaren prozesioa egingo dabe Parrokiaraino. Ezpatadantzariak saioa eskaintzen dabenean, ohiturari eutsiz, aurrekua dantzatuko dabe.

Garain tradizino handia daukien asto-proba eta asto-lasterketak izango doguz jaietan, baita tortilla, mus, briska eta igel txapelketak be.

Igaz lehengoz antolatu eben *Balkoitik balkoira* bertso saioa izango da aurtan be, Unai Iturriaga, Igor Elortza eta Amets Arzalluzegaz uztailaren 30ean, 22:00etan, eta gero gau-dantza Luhartz taldeagaz.



garaiako jai egitaraua

UZTAILAK 24, barikua

- 20:00 Txapligo eta kanpai hotsez donien-atxa jasotzea. Ondoren, ezpatadantzariak eta trikitilarien saioa.
- 22:30 Kontzertuak
- Erromeria: Petite & Konpani taldea.

UZTAILAK 25, zapatua

- 10:30 Txistulari eta dantzarien kalejira.
- 11:00 Meza nagusia San Migel elizan. Ondoren, Santiago imajinaren prozesinoa Elizabarriraino, apostoluari omenaldia eginez; *Agintariena* eta *Gernikako arbola* dantzatuko ditue. Ezpatadantzariak herriko plazan Durangaldeko asto-lasterketa Trikitilariak.
- 18:30 Asto-proba erakustaldia.
- 23:00 Gau dantza: Erdizka Lauetan.

UZTAILAK 26, domeka:

- 10:30 Txistulari eta dantzarien kalejira.
- 11:00 Meza nagusia Elizabarrin. Ondoren, Santiago Imajinaren prozesioa parrokiaraino. Ezpatadantzariak eta aurrekua.
- Eguerdian, triki-poteoa.
- 19:00 Tortilla txapelketa.
- 21:30 Gau dantza: Ti-Tau taldeagaz.

UZTAILAK 27, astelehena:

- 11:00-14:00 eta 16:00-19:00 Umeendako jolas parkea.

UZTAILAK 28, martitena:

- 18:00 Korrika txikia. Merendola.
- 18:30 Berehalako mus txapelketa plazan.

UZTAILAK 29, eguaztena:

- 18:30 Berehalako briska txapelketa plazan.

UZTAILAK 30, eguena:

- 10:30-13:00 Udalekuetako umeen eskulan erakusketa.
- 11:00 Potxin eta Patxin pailazoak.
- 18:30 Merinaldeko Erregela erakustaldia plazan.
- 22:00 Bertsolariak, *Balkoitik balkoira*: Unai Iturriaga, Igor Elortza eta Amets Arzallus.
- 23:00 Dantzaldia: - Luhartz taldea

UZTAILAK 31, barikua:

- 11:00 Meza. Ondoren, dantzariak eta igel txapelketa.
- 18:30 Asto-probak.
- 23:00 Gau dantza: - Elustondo neba-arrebak Txokolatada.

ABUZTUAK 1, zapatua:

- 13:00 Triki poteoa.
- 14:30 Herri-bazkaria. Erromeria Ansorregi taldeagaz.



DIMA GOLF >



Zure neurrira egindako golfagaz gozatzeko aukera Lapurriketan

Urtebeteko lanen ondoren, Lapurriketa jatetxeak itxura barriagaz zabaldu ditu ateak: golfean jokatu leiteke bertan

Aisialdi eskaintza barria jator-ku Lapurriketatik: Dima Golf Pitch&Putt, hain zuzen be. Otxandiotik Dimarako errepidean, golfa ezagutu eta praktikatzeko aukera dogu hemendik aurrera. Izan be, Lapurriketa jatetxeak aldaketak sakona egin dau azken urtean: jatetxea bera berriztu dabe, eta inguruko lurretan golf zelaia sortu dabe. Hori bai, golfean jolastea edozeinen eskura egoteko modura egokitu dabe; Pitch&Putt izeneko jokoak hurreratzen gaitu askorentzat ezezaguna den mundu honetara.

Dagoeneko, zabalik dago golf praktikak egiteko kantxa instalazio horreetan. Jotzeko modua, posturak eta beste hainbat faktore ezagutu leitekez estalita dagoen jaurtiketa gunean. Hemendik lasterrera, baina, Pitch&Putt jokoarentzako zelaia zabalduko dabe. Joko hau golfa-

Pitch & Putt izeneko jokoak hurreratzen gaitu askorentzat ezezaguna den mundu honetara

Joko hau golfaren familiakoa dela esan leiteke, baina bere izaera eta baldintzak daukaz

ren familiakoa dela esan leike, baina bere izaera eta baldintzak daukaz. Golfa errazagoa eta hurrekoagoa egitea dau helburu.

Irlandan jaioa

Pitch&Putt Irlandan sortu zen kirol moduan 40ko hamarkadan. Arrakasta itzela izan eban uhartean, eta laster zabaldu zen beste herrialde batzuetara: Australiara, esaterako. Kirol horren jautzia orain dela gitxi etorri zen, ordea. 2000. urtean Europako elkarteak jaio zen, EPPA izeneko.

18 zulo ditu Dimako zelaiak, eta ibilbide horretan zehar pilota zuloetan sartzean datza jokoa; hori bai, ahalik eta kolpe gitxien emonez. Berez, hiru kolpe bakarrik onartzen dira, eta hortik aurrerakoak gehigarritzat jotzen dira. Bola jaurtitzeko den tokitik

zuloraino, 40 eta 120 metro arteko luzera egongo da; golfagaz alderatuta, distantzia laburra, beraz. Izenak berak esaten dauen moduan, bi makila erabiltzen dira pilota mogitzeko: pitch eta putt. Pitch-ak hasierako puntutik berdegunera jaurtitzeko balio dau; putt-errak, berdegunetik zuloraino bultzada emoteko.

Familian eta lagunekin

Pitch & Puttaren distantzia laburrek asko errazten dabe jokoa, eta horregaitik esaten da edonoren neurrira egindakoa dela. Kirol aproposa da familiagaz arratsaldea pasatzeko; baita lagunekin dibertitzeko be.

Prezioak erakartzeko beste arrazoi bat emoten dau: saio bat egin leiteke 8 euroren truke. Gainera, hasibarrientzako leku egokia da Dima Golf, ikastaroak be antolatzen dira-eta. Ikastaro horreetan parte hartzeko, 37 euro ordaintzea nahikoa da.

Kirolak emoten dituen aban-

tailez gainera, Dima Golfek badauka beste faktore erakargarri bat: ingurunea. Gorbeiazen magalean eraiki dabe instalazioa, eta sagarrondoaren artean garatzen da ibilbidea. Natura errespetatuz eraikitako eremua da, eta parte-hartzaileek be hartu-emonia izango dabe ingurune elementuekin. Ibilaldi ederra osatzen da zulotik zulora.

Sagarra ezagutu egin geinke lehenengo, eta dastatu ondoren. Bertako jatetxean dogu horretarako aukera paregabea; kirola egin ondoren berriro indarrak hartzeko egokia.

Gorbeiazen magalean eraikita dago instalazioa, eta sagarrondoaren artean garatzen da ibilbidea

ERITZIA[>]

Gutunak @

Abuztuak 1, AHTaren obretara manifestazioa!

AHTaren Aurkako Asanbladak, uztailearen 24tik abuztuaren 2ra egingo den akanpadari amaiera emateko, Durangoko AHTaren obretara manifestazio bat konbokatu du abuztuaren 1ean, Ministerio de Fomentok eta Euskadiko Gobernuak "Y"-aren Gazteiz-Bilbo adarraren obrak aurreratzea, inposatzea eta arintzea indarrean ezartzen ari direnean, mobilizazioen bidez erantzuteko eta salatzeko helburuarekin. Manifestazioa, 12:00etan hasiko delarik Durangoko Andra Mari portikotik, Iurretako Orozketa auzoraino abiatuko da, eta proiektu txikitzaile honen lanak gelditzeko eskatuko du bere eragin ekonomiko eta sozial latzak direla-eta.

Durangaldean, beste inguru batzuen bezala, azpiegiturarako eta garapenerako beste hainbat proiektu ere badaude, eta hauek guztiek ez dute eragin onik izango gure ingurumenean; ez gizakiarengan, ezta hauen arteko harremanetan ere. Proiektu hauen gehitzeak, hau da, kanterak, autopistak, termikak, superportuak, gune-industrialak... gure osasunerako eta ingurumenarentzako ere eraso bat dela erraz ikusi daiteke. Eredu langile-kontsumista honen aurrean, zentru-komertzialak bul-tzatzen dituelarik, gure aisia kontsumo bilakaturik eta harrapaturik ikusten du bere burua. Eta lanari esker lapurtzen ari diren gure bizialdiaren denbora, autopisten eta tren berrien eskaera faltsuekin lotu nahi dute, arinago eraman gaitzaten kontsumitu eta lan egitera. Eta hau guztia, justu, arrazionala eta inteligena al da? Argi dago, horrela ez dela.

AHTari buruzko kasuan, kontziente gara, obretako tramo batzuen aurrerakadak (Araba), herri askotako des-jabetzak (Galdakao, Bedia, Lemoa,...) eta baita Euskal Herrietan dagoen inposizioak banakako zein maila kolektiboko moralak eta gogoa zapuztu ahal dituela. Baina gaur ere, eta berriro ere, esan nahi dizuegu, gu izan behar garela gure bizitzaren nondik norakoa erabaki behar dugunak. Komunikazio eta antolakuntza era horizontalak erabiliz, autonomoak eta asanbladetan oinarrituak, aldarrikapen ekologistatik haratago doan mugimendua sortu genezake, eta zatikako gatazkak gainditu, osotasunean ikustera helduz eta delegazioa eta boterean oinarritutako euren sistema ukatzen duen borroka moldea aurrera eramanez.

Durangaldeko Asanblada Antidesarrollistik, deialdi bat egiten dugu, pertsonai, indibidualki eta baita kolektiboki, ekintza hau denona (gurea, zurea, zuena) balitz bezala ulertuta, ekintza eta borroka honetan parte hartu dezazuen. Gaur egungo gauzen egoerak denoi eragiten badigu, gauza hauei aurre egitea ere denoi edagokigulako.

AHTrik ez eta kitto!
Kapitalismoa suntsitu!
Autoorganizazioa eta borroka!

Durangaldeko Asanblada Antidesarrollista

Klik batean @



Ama eta bere tropela

Matienako errekan ahate batek 18 ahatetxo ditu. Goizeko 09:00ak inguruan urtetan dabe Errota kultur etxe inguruan daukien 'etxetik' eta han ibiltzen dira ama eta seme-alabak, harro, errekan pasiatzen. Bizilagun batzuek ogia emoten deuse goizero.

kolaborazinoa



Marisa Barrena

Oporrak bakean

Urtero lez, heldu dira Sahara-ko umeak. Aurten 450 bat etorri dira Euskal Herrira. 'Oporrak bakean' programaren bidez ailegaten dira basamortuan jaio eta bizi direnak gurera. Umeok bi hilabetez egongo dira hemengo familiekin bizitzen, irailean berriro ere euren etxola edo haimetara itzultzeko.

Dena den, Tinduf-eko kanpamenduetatik irtetea ez da pentsa daitekeen bezain erraza. 8tik 12 urtera bitartekoak irteten dira handik, baina, hortik aurrera oso zaila egiten zaie, ikasteko ez bada.

Askok galdetzen du ona ote den ume horientzat hemengo aukerak, erosotasunak eta kontsumo gizarteak eskaintzen dizkigunak erakutsi ondoren ezer ez dagoen basamortura bidaltzea. Neuk ere egin diot galdera hori neure buruari, baina, azkenean pentsatzen dut urte guztian lan egin ondoren denok joaten garela pozik oporretara, nahiz eta jakin, berriro heldu beharko diogula lanari; beraz, ume horiei ere udan, behintzat, hondartza, elikagaiak, azterketa medikoak eta abar eskaintzea ezin hobe dela deritzot. Hori bai, lotura handia da umea hartzen duen familiarentzat.

"Tindufeko kanpamenduetatik irtetzea ez da pentsatu bezain erraza"

Hala ere, zailena bake kontzeptua ume horiei azaltzea egiten zait; etxepan lehergaiak eztanda egiten ikusten duten umeek, bakeaz hitz egitea. Armetara noiz itzuliko dauden errefuxiatuen seme-alabei zelan adierazi hemen, gure herri honetan, borroka armatuak indarrean dirauela eta milaka pertsona daudela mehatxupean ezberdin pentsatzearen.

Zure eritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:
Santa Ana Plaza 6, 48200 Durango - astekaria@anboto.org
Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN zenbakiagaz batera bialdu behar dira.
Alderdi, elkarte edo taldeko eritziak kide baten izenean sinatuta eta Anbotoren erizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira.
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO



anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarteak
2009ko uztailearen 17a - 8. urtea - 339 zk.

Laguntzailea:



Eta honako Udal guztiak:

Abadiño	Elorrio	Mallabia
Atxondo	Garai	Mañaria
Berriz	Iurreta	Otxandio
Durango	Izurtza	Zaldibar

Zuzendaria:

Jone Guenetxea.

Erredakzio burua:

Joseba Derteano.

Administrazioa:

Itziar Belar eta Miren Abasolo.

Publizitatea: Itziar Azula, Goretti

Alonso eta Amaia Huarte.

Erredakzioa:

Aitziber Basauri, Pello Mugarza,

Itsaso Esteban, Markel Onaindia

Testu zuzentzailea: Igor Elortza.

Maketazioa:

Ainhoa Arizmendiarieta.

Argazkilariak: Iban Gorriti, Judit

Fernandez eta Kepa Aginako.

**GAURSAk 2000E Plana
handitzen du**

1.000€ -KO

**DESKONTUA*
AUKERAKO EDOZEIN
IBILGAILU EROSTEAN**

10 urte baino gehiagoko kotxea uztean

*Gaurusak, Estatuko eta Euskal Autonomia Erkidegoaren araudiaren arabera, 2000E Planaren baliokide den deskontua aplikatuko dute bertan ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten kotxeak. Baloizko eskaintza 09/08/31a arte egindako erosketetan, aplikagarria partikular, autonomo eta ETE-entzat. Batera ezin besta eskaintza edo sustapenekin.

**RENAULT
OCASIÓN**

**ZUK DENA NAHI DUZULAKO
GAURSA AUTOAK**
ARRIANDI, 12. IURRETA. TELF. 94 620 33 00



AGENDA >

> ANBOTOk agendan ezer iragarri gura badozu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.



Uztailaren 18an, 22:00etan DIKOTOMIEI BURUZ

Txanogorritxo eta otsoa ipuina birsortu egiten du Gaitzerdi antzerki taldeak 'Otsoko' ikuskizunean. Inozentziaz, gauza ezezagunen bilaketaz, engainuaz, maite denaz... azken baten, jatorrizko ipuinaren dikotomien kriseilua da, 'Uda Klean Bizi' egitararen bitartez, Durangon izango den ikuskizuna. Ezkurdi plaza izango dabe agertoki Gaitzerdikoe, euria eginez gero, baina, Andra Mariko elizpean egingo dabe emanaldia.

ANTZERKIA

DURANGO

- >> **Uda Klean Bizi: 'Otsoko' (Gaitzerdi)**, uztailaren 18an, 22:00etan, Ezkurdi (euria bada, Andra Mariko elizpean).

ELORRIO

- >> **Musikaire: Mumusic Circus**



(Katalunia), uztailaren 19an, 19:30ean, eta, **'100% Tricicle' (Clownic-Katalunia)**, hilaren 26an, 22:30ean. Gernikako Arbola plazan.

BESTEAK

BERRIZ

- >> **Berriz Bizikletari Elkartek Frantziako Tourrera irteera antolatu dau: Montélimar-Mont Ventoux (20. etapa)**. Uztailaren 24an irtengo dira eta 26an itzuli (berrizbizikletarielkartea@gmail.com / 660 712 138).

ELORRIO

- >> **Elorrioko 'Aukera-Aukeran' Azoka**, uztailaren 17an, 10:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 20:00etara, Udal Kiroldegiko frontoian. Elorrioko Merkatarien Elkartek (EME) antolatuta.

DANTZA

BERRIZ

- >> **Folklore Jaialdia: Mari-Ei**

Errepublikako taldea (Errusia),



uztailaren 22an, 20:00etan, Olakueta frontoian. Hilaren 23an, **Cosandama (Peru)**.

DURANGO

- >> **Udako dantzaldiak: Orquesta Rex**, uztailaren 19an, 19:00etatik 21:00etara, Ezkurdi (euria bada Azoka Plazan).

DEIAK

DURANGO

- >> **Odola emoteko aukera**, Eguenero, 16:30etik 21:00etara bitartean, Anbulatorio Zaharrean. Mugarra odol-emole elkarreak deituta.

ERAKUSKETA

DURANGO

- >> **'D-UR-ANGO. Historia de un río'. Carlos eta Ismael Iglesias**. Uztalean, Arte eta Historia Musean. Udalak Arte Sorkuntza sustatzeko bekak babestuta (2007).

ZORNOTZA

- >> **Enrike Renteria margo lehiaketara aurkeztutako lanak**, uztailaren 28a bitartean, Zelaia zentroan.

JAIK

DURANGO

Juan Itziarko Santixauak

- >> **Txupinazoa**, uztailaren 25ean,

09:00etan eta **tortilla txapelketa**, 10:00etan. **Meza**, 12:00etan, eta **triki-poteoa**, 13:00ean. **Igel txapelketa**, ordu berean. **Herri bazkaria**, 14:30ean, **umeendako jolasak**, 16:30ean, eta, **karta txapelketa**, 17:00etan. **Txokolatea**, 18:00etan; **erromeria**, 22:00etan.

ERMUA

Santixau jaiak

- >> **Mongolia Rallyaren Ermua-Ulan-Mallabia taldekoen Mongoliarako irteera**, uztailaren 17an, 18:00etan, Orbe Kardinala plazan. **Paleta txapelketaren finalak**, Orbe Kardinala frontoian, 18:30ean, eta, 22:30ean, **Play-back lehiaketa**, plazan bertan.

- >> **Aldibereko Xake Partida Azkarren XI. Lehiaketa**, uztailaren 18an, 11:00etan, Orbe Kardinala plazan; 16:30ean, **VII. Mus Txapelketa Herrikoa. Dantza erakustaldia (Txindurri)**, 19:30ean. **Estrategia jokoak**, 12:00etan, Lobiano Kulturgunean. **Herrien arteko Xake Partida Azkarren XIV. Lehiaketa**, 16:00etan, San Martin plazan.

- >> **Revolver**, uztailaren 18an, 11:30ean, San Pelaio plazan.



- >> **Mendi-bizikletako XIV. Herri martxa**, uztailaren 19an, 09:30ean, Orbe Kardinala plazan. **Musika eta dantza jaia**, 18:00etan: **Ibai-Ega (Nafarroa) + Anduriña (Burgos) + Mariachi Real Azteca (Mexico)**.

- >> **Rol jokoak**, uztailaren 19an, 16:00etan, Lobiano kulturgunean. **Euskal Herria Txirrindularitza Txapelketa gazteendako**, 17:00etan (irteera eta helmuga Mallabiko errepidean).

- >> **Kontzertua: Marujita (Katalunia)**, uztailaren 21ean, 22:00etan, Orbe Kardinala plazan. Hilaren 22an, **Cu-bop (Cuba)**, eta, 23an, 22:30ean, Valdespinako Markesaren parkean, **PAM (Euskal Herria)**.

- >> **Buruhandiak**, uztailaren 23an, 10:30ean, Orbe Kardinala plazan. Era berean, **haurrendako parkea eta tailerrak** (11:00-13:00 / 16:00-19:00), eta, **Atxikistan musika**




ikuskizuna (Eidabe), 19:00etan. **Haurrendako txokolate-jana**, 17:00etan.

IURRETA

Arriandi-San Kristobal

- >> **Meza**, uztailaren 18an, 11:00etan. Ondoren, **Arriandiko dantzarien saioa eta sardinak, edariak eta gozokiak** banatzea. **XXXII. Tortilla Txapelketa** (bikotea sei euro) eta **XXV. Igel Txapelketa** (partaideko hiru euro) hasiko dira gero, Amezketako eskolan.

- >> **XLII. Briska Txapelketa**, uztailaren 18an, 18:00etan (bikotea sei euro). **Trikitilariak eta umeendako jolasak**, 18:30ean, Amezketako inguruetan, eta, 20:00etan, **Asto Probak**: Santa Mañako astoa (Jose Remente-ria), Maumako Astoa (Mayora elkarte) eta Mendatako astoa (Rubia de Mendata)



Orozketa-Santiagoak

- >> **Jaiei ondoetorria**, uztailaren 24an, iluntzean.

- >> **Meza**, uztailaren 25ean, 12:00etan, eta, jarraian, **Mikel Deuna dantza taldearen saioa eta igel txapelketa**; 16:30ean, **briska txapelketa eta amaitzean tortilla txapelketa**. Erromeria **Oihergi taldeagaz**, gauerdian. Atsedendian, **txokolatada eta erriaren zozketa**.

- >> **Meza**, uztailaren 26an, 12:00etan, eskolan. Gero, jaien amaiera.

OTXANDIO

Santamañak

- >> **Kalejira herriko txistulariekin**, uztailaren 17an, 18:30ean, **Salve Regina abestuko dabe** 19:30ean, Santa Marina elizan, eta, 21:00etan, **txupinazoa** Udaletxeko balkoitik: **urtero Santamañetan lanean diharduen baluntarioen eskutik**. **Danborraba**, Otxandiko Musika Bandakin lagunduta, 21:05ean, eta, 23:30ean, **Joselu Anaiaken dantzaldia**.

- >> **Kalejira herriko bandagaz**, uztailaren 18an, 11:30ean, eta, 12:00etan, **meza nagusia** Santa Marinaren omenez, **Oihandi abesbatzak parte hartuko dau**. Ondoren, 12:30ean, **kalejira txistulariekin eta Urduri dantza taldearen saioa**, 13:00etan.

- >> **Herri-kirolak**, uztailaren 18an, 18:00etan: **Urdax Magunazelaia**

11 urteko gazte otxandiarra, eta, **Jon eta Ioritz Gisasola**, 9 eta 10 urteko aizkolariak. **iPss, no hay prisa! albokari taldea**, 19:30ean, herriko kaleetan, eta, 23:30ean, **Luhartz taldeagaz** erromeria.

- >> **Diana eta kalejira**, uztailaren 19an, 07:30ean eta **sokamuturra**, 08:00etan. **Tortilla txapelketa eta umeendako parkea** 11:00etan, plazan. Era berean, **Zirko txik! malabare tailerra (Azulkillas taldea)**.



- >> **Pilota partidua**, uztailaren 19an, 12:00etan, Iluntzo pilota eskolak antolatuta, eta, 12:30ean, **Arimen meza**.

- >> **Potxin eta Patxin pailazoak**, uztailaren 19an, 17:30ean, eta **Algara (Gasteiz) dantza taldearen ikuskizuna**, 19:30ean. **'Terapia' (Markeliñe) ikuskizuna**, 22:30ean, plazan.



- >> **Umeendako pelikula**, uztailaren 22an, 22:00etan, plazan. Hilaren 23an, **pelikula emanaldia**, 22:00etan.

- >> **Arrantza txapelketa**, uztailaren 25ean, 09:00etan, Mataderoan. **Plater-tiroketa txapelketa**, 10:00etan, eta, **Otxandiko Bandaren kalejira**, 12:00etan. **Meza**, 12:30ean, San Martinen, eta, 13:30ean, **txistulariekin kalejira San Martinera**. Berton, 14:00etan, **paella eta bolo txapelketak, trikitilariak...**

- >> **'De Cuba su tradición' (Debosen) musika ikuskizuna**, uztailaren 25ean, 19:45ean, eta, 23:30ean, **Gozategi taldea**. Ondoren,



erromeria Alaiki taldeagaz.

- >> **Omenaldia 1936an izandako bonbardaketan hildakoei**, uztailaren 26an, 13:15ean, Andikona plazan. **Ohiko limonada**, 13:45ean, plaza nagusian, eta, 17:00etan, **tute, mus eta briska txapelketak**.

- >> **Pilota partidua**, uztailaren 26an, 18:00etan, plazan: Ibon Urrejola-

uztaileko agenda

Uztailak 18-19-25-26-31 • Iurreta Txirrindulari Elkartea
08:00 Iurretatik Iurretara. (90-100km)

Uztailak 18 • Mendiko Ibilbideak
Senda Viva (Navarra).

Uztailak 18 • Arriandi auzoko jaiak (Santa Maña eguna)
11:00etan Mesa Santa Maña basilizan. Jarraian sardinak, edariak eta gozokiak banatuko dira. Ondoren, XXXII. Tortilla txapelketa/XXV. Igel txapelketa (6/3 euro)
18:00etan XLII. Briska txapelketa (6 euro).
18:30etan Trikitilariak
20:00etan Asto probak

Uztailak 24-25-26 • Orozketa auzoko jaiak (25 Santiago eguna)
24 barikua - Iluntzean jaien hasiera.
25 zapatua - 12:00etan Mesan nagusia. Mikel Deuna dantza taldea. Igel txapelketa.
16:30-17:15 Briska txapelketa. Ondoren tortilla txapelketa
0:00etan Erromeria OHIERGI taldearekin. Atsedendian txokolatada eta erriaren zozketa.
26 domeka - 12:00etan Mesa nagusia eskolan. Jaiei amaiera emango zaie.

IURRETAKO UDALA

Ander Ocerin eta Ander Larrako-txea-Etxebarria. Ondoren, 2. mailako profesionalak: Angita/Jaio Flores/Velaskoren kontra. **Senegaleko musika eta dantzak (M’Lomp kultur elkarte),** 20:00etan, kaleetan, eta, 23:00etan, **Orotz taldeagaz** erromeria. **Agur Santa Marina,** 01:30ean.

ZORNOTZA

Karmenak

- » **Bizikleta festa,** uztailaren 17an, 19:00etan Zubiondon, eta, zezen plazan, **sokamuturra.**
- » **X. Txistularien Kontzertua.** Uztailaren 17an, 21:30ean, Zelaieta parkean. Abeslari gonbidatuak: Jose Antonio Urdiain, Beñat Egiarte eta Jaurne Gaminde. **Nine Bellow Zero,** 22:30ean, Zubiondon, eta, 23:00etan, txosnetan, **Esne beltza + Tres 41.**
- » **Umeen arrantza lehiaketa,** uztailaren 18an, 09:00etan, Ibaizabal errekan. **Marmitako lehiaketa,** goizean, Zubiondon. Jauregibarrian, 11:00etan, **Zaldi lehiaketak.**
- » **Gurutz Gorriaren erakustaldia,** uztailaren 18an, 17:00etan, Andra Maria plazan. Urbano Larruzea kalean, **XXVIII. Xake Txapelketa,** eta, Amorebieta IV. pilotalekuan, **Karmenetako Esku Pilota Txapelketa.**
- » **Euskal Herriko dantza taldeen saioa,** uztailaren 18an, 18:00etan, kaleetan (Zelaietan, 20:00etan). **Sokamuturra umeentzat,** 19:00etan, Zezen plazan.
- » **‘Mundo y final’ (Ron La La) ikuskizuna,** uztailaren 18an,

- 21:00etan, Zornotza Aretoan. **The Heptones & Basque Dub Foundation,** 23:00etan, txosnetan. **Kanp Berbena + Or Konpon orkestra,** 24:00etan, Zubiondo plazan.
- » **Udazken taldearen kalejira,** uztailaren 19an, 11:00etan.
 - » **Jolas parkea,** uztailaren 19an, egun osoz, Zelaieta parkean. **Pantxoa eta Peio,** 22:00etan.
 - » **Sokamuturra,** uztailaren 19an, 19:00etan, zezen plazan, eta, 20:00etan, Larrean, **konzertua: Abes Kimu abesbatza + Coral Zornotza + Xemein abesbatza + Bilboko Katedraleko orkestra.** Aita Jose Domingoren omenez.
 - » **Bertsolariak: A. M. Peñagarikano,**



- F. Paia, M. Artetxe eta I. Zubeldia. Gai jartzailea: U. Ormaetxea.** Uztailaren 20an, 22:00etan, Zelaieta parkean. **‘Otsoko’ (Gaitzerdi) kale antzerkia,** uztailaren 21ean.
- » **Umeendako tanborrada,** uztailaren 22an, 19:00etan, eta, 22:00etan, Zubiondo plazan, **nazinoarteko dantzak: Nairi taldea (Armenia).**
 - » **Gu Gira kantaldia: Urko, Gontzal Mendibil, Hurbil eta Txomin Artola, Niko Etxart,** uztailaren 23an, 22:00etan.

LEHIAKETA

- DURANGO
- » **Sanfaustoak iragartzeko kartel lehiaketa.** Azken eguna irailaren 5a, Herritarren Arreta Zerbitzuan (HAZ) 12:00ak artean. Saria: 1.000 euro.



Uztailaren 18an, 22:30ean

MASTRETTA, AZKEN DOINUEKIN DATOR ELORRIORA

Madrilgo Mastretta taldea ‘Vivan los músicos’ azken lanean batutako doinuekin etorriko da Elorrira, Musikaire egitarauaren eskutik. “Musika herrikoien iturrien bila abiatutako abenturaren emaitza da” taldekideek eurek azaldutakoaren arabera, eta bertan, musikari bakotxaren gaitasunari eta bat-batekotasunari bide emonez, hartu-emon berezia lortu dabe, partiturretatik haratagoko ezustea eta emozinoa aurkitzeko. Eskaintzen daben zuzeneko indartsua da horren erakusle. Tola jauregia izango dabe zapatuan eskainiko daben kontzertuaren agertoki.

BOTIKAK

Barikua, 17
09:00-09:00
• SanRoma (Uribarri 5 - Durango)
Zapatua, 18
09:00-09:00
• Gaztelumendi (F.J. Abasolo 2 -Durango)
09:00-13:30 (*14:00)
• Balenciaga/ Campillo/ San Roma (Durango)
• Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)
09:00-22:00
• Balenciaga (Berrio Otxoa 12 - Elorrio)
Domeka, 19
09:00-09:00
• Unamunzaga (Murrueta Torre 2C - Durango)
Astelehena, 20
09:00-09:00
• Mugica (Andra Mari 9 - Durango)
Martitzena, 21
09:00-09:00
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - lurreta)
09:00-22:00
• Eguren, Cristina (Trañabarren 15 - Matiena)
Eguaztena, 22
09:00-09:00
• Balenciaga (Ezkurdi 8 - Durango)
Eguena, 23
09:00-09:00
• Balenciaga (Ezkurdi 8 - Durango)
09:00-22:00
• Eguren, Isabel (Torresolo 4 - Abadiño)

TELEFONO INTERESGARRIAK

SOS Deiak.....112
DYA94 620 28 00
Gurutze Gorria94 681 09 49
Osakidetza94 600 72 00
Ertzaintza94 466 93 00
Suhiltzaileak112

GARRAIOAK

Euskotren.....902 54 32 10
Durango94 681 02 32
Bizkaibus94 448 40 80
Pesa902 10 12 10
Continental Auto945 286 466

TAXIAK

Abadiño946 814 470
Matiena606 459 988
Durango Geltokia....946 811 001
Goco Tour946 202 860
Tele Taxi944 102 121
Radio Taxi Bizkaia ..944 269 026
Elorrio Geltokia946 820 040
J.L. Uriarte ..670 402 002
I. Estebez670 678 273
M Galeano.....946 582 854
lurreta946 201 565

UDALAK

Abadiño94 621 55 30
Atxondo94 682 10 09
Berriz94 682 45 84
Durango94 603 00 00
Elorrio94 658 27 12
Garai94 681 63 93
lurreta94 620 12 00
Izurtza94 681 35 48
Mallabia943 17 14 61
Mañaria94 681 89 98
Otxandio945 45 00 20
Zaldiabar94 682 70 16

UDALTZAINGOA

Abadiño94 621 55 33
Berriz94 682 40 36
Durango94 603 00 10
Elorrio94 682 02 18
lurreta94 620 08 88

BESTELAKOAK

Arriola94 658 31 92
San Agustin94 603 00 21
Zornotza Aretoa94 630 01 68
Gazte informazioa 94 603 00 30

Txanporta KE94 620 36 47
Errota KE94 466 94 16
Gorabide94 681 24 35
Alkoholiko Anonim. 94 415 07 51
Nekazal bulegoa94 681 15 20
Uren Partzuergoa ..94 681 74 86
Butanoa (UME).....94 681 08 77
Araztegia94 620 28 00
Foru Ogasuna.....94 681 07 42
INEM Durango94 681 12 96
Gizarte Segurantzaz 94 681 49 58
Epaitegiak.....94 603 00 51

KIROLDEGIAK

Igerilekua
Astola94 620 29 29
Igerilekua
Atxondo94 623 14 38
Berriz94 682 43 74
Durango
(Landako).....94 621 51 30
Durango
(Tabira)94 621 51 50
Elorrio94 682 10 27
Zaldiabar94 682 73 74

MUSIKA

- DURANGO
- » **Uda Kalean Bizi: Mademoiselle Orchestra,** uztailaren 26an, 20:00etan, Alde Zaharrean.



- ELORRIO
- » **Musikaire: Blue Harlem**



- (Ingalaterra), uztailaren 17an, 22:30ean, Tola Jauregian. Uztailaren 18an, **Mastretta (Madril).**
- » **Musikaire: Cherry Boppers (Euskal Herria),** uztailaren 24n, 22:30ean, Argiñetan. Uztailaren 25ean, **Delorean (Euskal Herria).**

ZINE-KLUBA

- BERRIZ
- » **Zine emonaldia.** Uztailaren 17an, 22:00etan, Olakueta.

ZINEMA

DURANGO

Zugaza

Harry Potter y el misterio del Principe
Zuzendaria: David Yates
barikua 17:
19:00 / 22:00
zapatua 18:
17:00 / 19:45 / 22:30
domeka 19:
17:00 / 20:00
astelehena 20:
19:00 / 22:00
martitzena 21: 20:00



EGURALDIA

21° BARIKUA

Temperaturak beherakada handia jasango dau. Fronte hotz baten eraginpean izango gara eta giroa nabarmen hozteaz gainera, hodeiak ugaritu egingo dira eta euritara joko dau eguraldiak.

24° ZAPATUA

Hodeiak erabat desagertuko ez diren arren, ostarteak ugaritu egingo dira. Giro freskoagaz hasiko dogu eguna. Temperatura epelenak, aldiz, 23-25°C-ren bueltan ibiliko dira. Haizea ahuldu egingo da.

27° DOMEKA

32° ASTELEHENA

34° MARTITZENA

ELAIA Information Technology >

Segurtasun kopia ezberdinen artean: Urruneko segurtasun kopia

Egunero egunero, informazioa gordetzen dugu gure ordenagailuen disko gogorretan (dokumentuak, argazkiak, bideoak, musika, etab).

Gordeta izateaz gain, informazio hori mila eratan antolatuta izaten dugu eta ordu mordo sartu ostean, dena txukun-txukun dago.

Zenbatekoa da informazio horren balioa? Zer gertatuko litzateke birus informatiko, geure akats, lapurreta bat, ... edo beste edozein ezberhar izan eta informazio hori galduko bagenu? Ez dugu jakingo, harik eta gertatu arte.

Horregatik, segurtasun kopiak egitea beharrezkoa da. Hainbat aukera daude: zinta magnetikoak, cd eta dvd-ak, usb disko gogorrak, etab.

Guztiak dira baliagarri, baina gure "eskua" behar da. Hauxez gain, beste aukera bat dago: urruneko segurtasun kopia. Aukera honek alde on asko dauzka: segurtasun kopia eta gure informazioa fisikoki toki desberdinetan daude, behin konfigurazioa burututa ez dugu beste lanik, segurtasun kopia edozein lekutan berreskuratu dezakegu, geuk bakarrik izango dugu informazioa berreskuratzeko aukera, etab.

Urruneko segurtasun kopia egiteko behar duzun bakarra, internet konexio bat da, beste guztia ELAIAREN esku utzi eta egun gutxiren buruan zure informazioa seguru izango da. Behar guztiei egokitzen den segurtasun kopia daukagu. Zure informazioa galtzeak larritzen bazaizu, jarri gurekin harremanetan. Harremanetarako: info@elaia.es edo 94 640 98 98.



Gomendioa

Nork ikus ditzake nire Facebook-eko argazkiak?

Jende askori entzun diot eta askok galdetu dit ea sare sozial letako informazioa nork ikus dezakeen, nork dituen eskubi-deak, etab.

Facebook, sare sozial zabalduenetako bat da eta bertan dagoen informazioa, kontrakoa adierazi ezean, edonork ikus dezake (guri buruzko informazioa, guk idatzitakoa, gure argazkiak, etab). Batez ere argazkiak ematen digute burukomina; nork ikus ditzake gure iloba txikiari edo lagunekin egindako parranda baten ateratako argazkiak? Nik, nire lagunei, familiakoei, edo baten bati bakarrik eman nahi diot baime-na!

Askotan izaten dugun zantzata bat da, baina jadanik badago argitzen lagunduko digun aplikazio bat: <http://apps.facebook.com/tu-privacidad>.

Programa honek esango digu zein album dagoen guztien ikusgai eta zein ez. Helbide hau jarri nabigatzailean, idatzi Facebook-erakoerabiltzaile eta pasahitza eta informazio guztia jasoko dugu. Gainera, pribatu bihurtu nahi izanez gero ere laguntza eskainiko digu.

Zalantzarik izanez gero idatzi anbototik@elaia.es helbidera.

KONTSULTA

Ba al dago modurik nire hotmaileko email kontua Outlook 2003an konfiguratzeko? Askoz ere erosoagoa izango litzateke ezta? S. Ortega (emaillez)

Bai. Nahiz eta lehen inolako arazorik gabe konfiguratu zitekeen, orain programa bat erabiltzea da modurik errazena. Bai Outlook eta baita Hotmail ere Microsoft konpainiarenak dira, eta biak komunikatu ahal izateko Microsoft Office Outlook Connector erabili. Programa hori [www.microsoft.es](http://www.microsoft.es/webgunean) webgunean daukazu. Dena dela gure blog-ean (<http://elaiait.blogspot.com>), programa hau nondik jeitsi, nola instalatu eta konfiguratu azaltzen duen artikulu bat jarri dugu prozesua argitu eta erraztu asmoz.

KONTSULTAK BIALTZEKO:
anbototik@elaia.es e-mailera idatzi.
Gehienez 200 karaktereko kontsulta.

KONTSULTAK BIALTZEN DOZUENEN ARTEAN
ANTIBIRUS BAT ZOZKETATUKO DA.

ren eskutik MacBook PRO berriak

13" 1099 €

15" 1549 €

17" 2259 €

+

129 €

SAMSUNG 2043NW 20"

biak batera...

1219 €

1669 €

2379 €

...maletin bat opari!!

* Precio guztiak BEZ barne

KIROLAK >



Ermutik Mallabira, Mongoliatik igarota

Otsailean aurreratu genuen Ermuko eta Mallabiko lau gaztek Europa eta Asia zeharkatzen dituen Mongol Rallya korritzeko asmoa zutela. Hileetako prestakuntzaren ondoren, iritsi zaie abiatzeko ordua. Gaur, 18:00 inguruan, Ermuko Orbe Kardinala plazatik ekingo diote hiru astean osatzea espero duten abenturari. Bihar Bartzelonan emango zaio hasiera ofiziala rallyari, eta 13.000

bat kilometro eginda Mongoliako hiriburu Ulan Batorren helmugaratuko dira parte-hartzaileak.

Erik Del Rio mallabitarra eta Josu Azpiri, Miguel Moyano eta Unai Bergaratxe ermuarra dira lau abenturazaleak. Zergatik ez aipatu bidaia luzeko bosgarren protagonista ere: 55 zaldiko potentzia duen Peugeot 106a.

Bartzelonatik 100 talde abiatuko dira; Ingalaterra eta Italiatik

beste 400. Txekiako Klatovy herrian batuko dira 500 taldeak. Handik Austria, Kroazia, Serbia eta Bulgaria zeharkatu eta Turkiara iritsiko dira. Bide hori jarraian egiteko asmoa dute. Ondoren, Uzbekistan eta Errusiatik igaroko dira, besteak beste, Mongolian sartu aurretik.

Horrelako bidaia batean ezin daiteke dena aurreikusi. Beti egongo dira ezustekoak. Horrek

ez du esan nahi plangintzarik behar ez denik; zenbat eta zehatzagoa, hobe, gainera: "Oso argi ibili beharko dugu mugetan, asteburuetan muga asko itxita egoten baitira. Gure helburuak lortzeko kalkulu zehatzak egiten jardun dugu luzaroan. Hala ere, ustekabeak espero ditugu", dio Erik Del Riok.

Izaera benefikoa

Mongol Rallya Institute of Adventure erakundeak antolatzen du. Erakunde horrek kotxe lasterketak erabiltzen ditu kooperazio-lanak egiteko, Asian, Amerikan eta Afrikan. Gobernu Kanpoko Erakundeek jasotako dirua eskolak sortzeko edo nekazaritza sustatzeko erabiltzen dute. Rallyko parte-hartzaileek 3.000 euroko laguntza ematen dute; lasterketarako erabilitako kotxea ere bertan uzten dute. ■ J.D.

Bihar ekingo diote Mallabiko eta Ermuko lau lagunek Mongol Rallyari

24 Maila oneko finalak Zaldibarren

Zaldibarren eskualdeko finalak jokatu ziren joan zen domekan. Etxeko taldeak bi final jokatu eta biak irabazi zituen; Mallabia lau finaletatik bakarrean nagusitu zen.

25 Mendiolagarairen azken urtea

Bizkaiko emakumezko saskibaloia jokalaririk onenaren saria jaso du aurten Amaia Mendiolagaraik. 33 urterekin datorrena izango ei du azken urtea saskibaloian lehiatzen.

Zaldibarrek bitik bi

Zaldibarren jokaturako Durangaldeko II. Pilota Txapelketako sei finalen artean jokaturako biak erraz irabazi zituen etxeko klubak



Umetxoetan mailan Mallabiak jantzi zuen txapela. Judit Fernandez

Umetxoetan mailatik kadeteetara, Durangaldeko II. Pilota Txapelketari zegozkion sei final jokatu ziren, joan zen asteburuan, Zaldibarko pilotalekuan. Zaldibarrek bi irabazi zituen, eta Mallabiak eta Atxondok bana.

Mallabiak lau final jokatu eta txapel bakarra irabazi zuen, umetxoetan mailakoa

Umeen A mailan Zaldibarko Iparragirrek eta Praderak 18-5 irabazi zioten Markinako bikoteari. Gaztetxoetan A mailan Berein-kuak eta Praderak bigarren txapela eman zioten Zaldibarko, Atxondo 18-7 menderatuta.

Mallabiak ere lortu zuen txapel bat, baina lau final jokatu; ezin esan arratsalde borobila izan zutenik. Umetxoetan Hdidouk eta Gisasolak 18-13 irabazi zioten Mañariari. Umeak B, gaztetxoak B eta kadeteak mailetan galdu egin zuten Lekeitioaren (16-18), Markinaren (6-18) eta Atxondoren kontra.

Kadeteetan Mallabiak ez zuen bere ohiko bikotearekin jokatu, eta Atxondok irabazi zion

Kadete mailan Mallabiko atzelariak ezin izan zuen jokatu, eta ordezkioa bilatu behar izan zuten. Ahalegindu ziren, baina Atxondoko Martínez eta Josebak bikote hobea osatu zuten, eta lan erdietan utzi zituzten mallabitarak (18-9).

Laburbilduz, umetxoetan mailako partiduetan orekatuenak izan ziren; gaztetxoetan lehian, aldiz, ez zen kolorerik izan. Kadeteetan, azkenik, finalak ez zituen aurreikuspenak bete. ■ J.D.

Cafés Baquék lehen garaipena bilatuko du

Elgetako Kriteriuma eta Valladolid eta Sevillako itzuliak korrituko dituzte uztailan

Behin baino gehiagotan hatzen puntekin ukitu arren, oraindik garaipenak zaku hutsik dauka Ruben Gorospek gidaturako taldeak. Esaterako, Igor Romero eta Víctor Martínez bigarren geratu ziren Murgiko eta Pican-yako lasterketetan.

Asteburuan beste aukera bat izango dute Elgetako Mendiko Kriteriumean. Horrez gainera, datorren astean itzuli bi korrituko dituzte: 23 urtez azpiko Valladolid deko Itzulia –uztailaren 25ean eta 26an– eta Sevillako Challenge-a –uztailaren 23tik 26ra–. Ruben

Gorospe itxaropentsu dago: “Pausu txiki bat falta zaigu. Dena dela, emaitza hobekak iritsiko diren konfiantza dut”.

Bestalde, Cafés Baquék taldeko bost ekipaia zozketatu ditu eta irabazleetako bat eskualdekoa da: Cecilia Isasi durangarra, hain zuzen ere.

R.Gorospe: “Pausu txiki bat falta zaigu. Emaitza hobekak iritsiko diren konfiantza dut”

Agustin Alkorta
• Futbol entrenatzailea



Lezama sutan

Ez da uda lasaia Athletic-ena, batez be, Lezamako sukaldeetan. Badirudi Macuak konfiantza galdu dauela bertako buruekin, eta erabaki gogorak hartu ditu; Intxaurragak direktibako kargua itzi dau bitartean, desadostasuna erakutsiz.

Batetik, Luis Solar kaleratu dau, bere kanpainan kirol aditu legez aurkeztu eta gero. Lau urteko legealdiaren erdia bete dau... eta orain ez dau balio! Bestetik, Kike Liñero bota dau, bigarren taldeko entrenatzailea azkenengo hiru denboraldietan, aurreko udan bere postuan konfirmatu eta gero, denek kalera botatzeko esan arren.

Eta ordezkioak? Irureta nagusi legez eta De la Fuente bigarren taldeko entrenatzaile. Jaboren esperientzia hor dago, luzea bezain aberatsa, baina...perfila betetzen dau? Amorrorturen ezezkoak zer pentsatua emoten dau. Eta De la Fuenteri buruz, zer esan... Caparrosen eskua igartzen dela erabaki honetan.

Lezamako proiektuagaz pazientzia handia eduki behar da. Ez da egun batetik bestera egiten. Denpora behar da eta egunero ez dabe irtezen Susaeta, Llorente edo Iraola lakoek. Horrek ez dau esan gura lana txarto egiten dabilzenik.

Azkenengo urteetan, sekula egin ez dauen moduan, Athletic inguruko merkatuetara begira dago (Tokero, Koi,...), eta alboko kanteretara (Balenziaga, Javi Martínez,..), baina horrek ez dau zertan adierazi Lezamak pisua galdu dauela Athleticen martxan. Izan be, Lezama beti izango da bere eguneroko ogia. Ez ahaztu.

Orain arteko emaitza onak errepikatu nahi ditu Azkorbebeitiak Italian

Oihana Azkorbebeitia korrikalari abadiñarrak Munduko Kopako laugarren proban parte hartuko du hilaren 26an, Leccon, Italian. Berataz gainera, Fernando Etxegaraik, Felipe Larrazabalek eta Jokin Lizeagak osatuko dute Euskadiko Selektzioa. Azkorbebeitiak orain arte parte hartu duen proba bietan bosgarren amaitu du. Sasoiz ondo dago, eta “bolada onari jarraipena ematea” du helburu.



GALDERA:
Durangoko zein auzotan berreskuratuko ditue jaiak uztailaren 25ean?

Izena: _____
Tel.: _____

Makatzeta jaietxerako lagun birendako afari-txartela zotz egingo dogu.

Bialdu erantzunak: Santa Ana, 6 Durango edo astelekoa@anboto.org helbideetara, Hiruaren azken alean agertuko da irabazlea.



M
Makatzeta
ARRAZOLA
Arrazola- Atxondo
Tel.: 94 658 29 31

Amaia Mendiolagarai (33 urte, Iurreta) 19 urte daroaz Tabirakon jokatzeko. Hamaika bizipen ditu, Emakumeen Ligako Bigarren Mailan jokatu zituen bost urteak, esaterako; "Politak eta gogorak", izan ei ziren. Orain, bere esperientzia taldeari laguntzeko darabil: kantxa barruan zein handik kanpora.

Txiki-txikitatik talde bakarra ezagutu dozu: Tabirako.

San Lorenzo ikastetxean ibili nintzen 9 urtetatik 14ra. Harrezkero, Tabirakon nabil. 1993an debutatu neban nagusiekin, 17 urteaz.

Gazterik debutatu zenuen.

Urte berean bost lagun igo ginen. Egia esan, talde oso ona geukan. Ezin naz kexatu eduki dodan ibilbideaz. Gustatu jatana luzaroan egin ahal izan dot eta lesioek be errespetatu nabe.

Orain taldeko beteranoa zara.

Gogoan daukat beteranoak Soltxu Barrenetxea, Izaskun Bengoa eta Maixa Garro ziren sasoia. Horrek itzi eben eta orain Amaia Huerta eta biok gara beteranoenak.

☞ **Taldea egitea eta jokariak hezitzea be bada helburua** ☞

☞ **Saskibaloia itzita eduki ondoren malenkonia sartu jatan eta barriro hasi nintzen** ☞

Beteranoek galoia izaten ditue, eta galoiekin erantzukizunak datoz. Zelan daroazu? Batzuetan beste batzutan baino hobeto. Noizetik noizera denen gustukoak ez diren erabakiak hartu behar izaten ditut, baina egin beharra dago. Horrez gainera, esango neuke, lehen esfortzurako prestuago gengozela orain baino. Konpromiso falta apur bat somatzen dot. Balore batzuk galtzen gabilz. Ez dot esan gura gazteak ahalegintzen ez direnik. Ahalegintzen dira, baina beharbada gizar-tea da aldatu dena. Beste testuinguru batean hasi dira, gauzak beste modu batera ulertzen ditue. Hor egon leiteke azalpena.

Kapitain lanak Amaia Huertagaz txandakatzen dozuz.

Orain urte bi Amaia izan zen, eta

“Datorrena azken urtea izango dot; gazteei tokia itzi behar jake”



Amaia Mendiolagarai iurretarrak 24 urte daroaz saskibaloian jokatzeko, eta horreetatik gehienak Tabirakon.

aurten niri tokatu jat. Aurten ez dakit nor izango den. Bata izan zein beste izan, garrantzitsuena gazteei zeuk ikasitako baloreak irakastea da. Taldea egitea eta jokariak hezitzea da helburua, kantxa barruan zein kanpoan.

Entrenatzailea be bazara.

Aurten gazteen taldeagaz ibili naz, eta datorren denboraldian bigarren taldeko hirugarren entrenatzailea izango naz, Josu Zudaire eta Aitor San Antonen ondoan.

Irlandesas urtero saiatzen ei da zu fitxatzen, baina beti kalabazak emoten deusazuz.

Egia da (barrez). Irlandesas talde inportanteenen artean dago, eta eurek ni fitxatu gura izatea ohorea da. Baina hemen daukat lana eta, gainera, ibilbide osoa Tabirakon eginda, hementxe erretiratu gura dot. Dena dela, aurten ez deuste deitu. Etsi dabe, antza.

Ibaizabal be zure atzetik ibili zen.

Emakumeen Ligako Bigarren Mailara igo zirenean eskaini eusten. Lehen esandako arrazoiek honako kasu honetarako balio dabe. Gainera, bere sasoian ezagutu neban maila hori Tabirakogaz. Bost urtez jokatu genduen; urte politak eta gogorak izan ziren.

Politak eta gogorak...

Bai, hasikeran dena barria zen guretzako. Espainia osotik ibiltzen ginen, jente asko ezagutu eta asko ikasi genduen. Azken urte biak gogorak egin jakuzen. Batzuetan barikuan irten eta domeka arratsaldean bueltatzen ginen. Jenteak uste dau festarako aukera ezin hobea dela, baina, badinotsut, ez dago holakorik. Orain lau-bost urte jaitsi ginen.

Orain urte gitxi saskibaloia itzi zenuen eta hurrengo urtean berriro bueltatu zinen.

Nekatuta negoen eta iztea erabaki neban. Baina eurekin entrenatzen jarraitu neban eta partiduetara be joaten nintzen. Azkenean, malenkonia apur bat sartu jatan eta berriro bueltatu nintzen.

Noiz arte jarraituko dozuz?

Datorren urtea azkena izango da. Nahikoa dela uste dot. Gazteei tokia

itzi behar jake. Sinatuko neuke aurtengoa modukoa izatea: Euskadiko Selekzinogaz jokatu eta Katapultari irabazi deusagu, emakumetan Bizkaiko jokalaririk onenaren saria emon deuste...

Emakumeetan denboraldi ederra osatu dau Tabirakok.

Ados nago. Oso denboraldi ona egin dogula uste dot. Gainera, kontuan hartu behar da lesioekin zorte txarra eduki dogula urte osoan zehar. Partidu batzuetan taldea justu-justu osatu ahal izan dogu. Ildo horreetatik, gazteek lan ona egin dabe.

Datorren denboraldian aurre- rapausu txiki bat emonda...

Erdi brometan komentatzen dogu igoera fasean egon gaitkezela. Talde indartsuak dagoz, baina gu gogoz ahaleginduko gara. ■ J.D.

☞ **Lesino asko izan arren, denboraldi oso ona egin dogu aurten** ☞

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 816 673
Faxa: 946 817 636
construcciones@zarateylexpe.biz

goizeko 08:00etatik
gabeko 21:00etara
zabalik

clínica dental hortz klinika
